

Araba eta Bizkaiko

bertsolari txapelketa 90

© Bertsolari Elkartea
© Bizkaiko Foru Aldundia
Azala: Bittor Txakartegi
D.L.: BI-1855-1991
Moldiztegia: GRAFILUR

AURKIBIDEA

Sarrera:

1.- Eskerrona	7
2.- Liburu hau dela eta	7
3.- Txapelketaren arauak	7
4.- Parte-hartzaileak	10
5.- Puntuaketa	13
6.- Transkribaketaren erizpide nagusia	15
Gernikako saioa (1. finalaurrekoa)	17
Durangoko saioa (2. finalaurrekoa)	71
Bilboko saioa (finala)	127

SARRERA

1.- ESKERRONA

Ezer baino lehenago eta lehentasunak lehentasun, eskerrik beroenak emanez hasi gura genuke, bai euren lana edota partehartzea dela bide 1990eko Araba eta Bizkaiko Bertsolari Txapelketa hau eratzen lagundu diguten guztiei eta baita euren arreta eta txaloak eskainiz txapelketa osoan zehar lagundu gaituzten bertsozaleei ere, inorekin zorrik izatekotan, eurokin daukagulakoan zorrik haundiena.

Eraberean, Bizkaiko Foru Aldundia goraipatu gura genuke txapelketa honetarako eskaini digun diru-babesagatik.

Eta azkenik, ezin eskertu barik utzi, bertsozale guztiok zelanbait lotzen gaituen Bertsolari Elkartearen laguntza (Bizkaikoa zein Euskal Herrikoa), bere magalean eratu bait dugu txapelketa berau.

2.- LIBURU HAU DELA ETA

Liburuari berari dagokionean berriz, argi utzi gura genuke liburu hau ez dela txapelketaren akta idatzi hutsa, egin ere orrazketak egin bait dizkiogu bere irakurketa samurrago eta atseginago gerta dadin. Beraz inork txapelketaren benetako akta diren zuzeneko grabazioak entzun nahi izan ezker, Araba eta Bizkaiko Bertsolari Elkartera jotzea baino ez dauka, bertan bait daude edonork erabiltzeko moduan.

Orobat esan liteke puntuazioaren gainean, sarreratxo honetan puntuazio orokorrak ematera mugatu bait gara.

3.- TXAPELKETAREN ARAUAK

Atal honetan, txapelketa baino lehen esku-orrietan zabalduriko baldintzak agertuko ditugu:

BALDINTZA OROKORRAK

1. Txapelketa hau Araba-Bizkaiko Bertsolari Elkartek antolatzen du, Bizkaiko Foru Aldundiak babesten duelarik.
2. Araban edo Bizkaian bizi edo jaio diren 18 urtez gorakoak dira partaide. Gainera, eskubidea izan dute partaidetza honetarako, 1990.eko Euskalerriko gaztetxoek txapelketan finalera heldu ziren bizkaitar-arabarrak.
3. 1987ko Araba-Bizkaiko txapelketan finalean sartu zirenak finalaurrekoetara doaz zuzenean; 12 arterainoko beste bertsolariak kanporaketetan punturik gehien lortzen dituztenak izango dira. Eta Arriagako finalean, finalaurrekoetan ondoen sailkatzen diren 8ak izango ditugu.

EPAIMAHAIA ETA PUNTUAKETA

1. Epaimahaia bost pertsonak osotzen dute.
2. Epaimahaikideek bertsoka puntuatuko dute, eta saioaren azkenean emango da ezagutzera bertsolari bakoitzak eskuratu duen puntuen kopurua; beraz, saioan zehar, publikoari ez zaio puntuaketaren berri emango.

BERTSO SAIOETAKO LANA

1. Kanporaketa saioetan:
 - hiruna bertso ofizioan, zortziko nagusian
 - hiruna bertso oficioan, zortziko txikian
 - gartzelako lana:

bertso bana lehen puntua emanda, zortziko txikian
bertso bana azken puntua emanda, zortziko txikian

hiruna bertso neurri librean, gaia emanda.

2. Finalerdiko saioetan:

- hiruna bertso ofizioan, zortziko nagusian
- hiruna bertso ofizioan, zortziko txikian
- hiruna bertso ofizioan, hamarreko txikian
- gartzelako lana:

bertso bana lehen puntua emanda, zortziko txikian
bertso bana azken puntua emanda, zortziko txikian
hiruna bertso neurri librean, gaia emanda.

3. Finaleko saioa:

- hiruna bertso ofizioan, zortziko nagusian
- hiruna bertso ofizioan, hamarreko txikian
- hiruna bertso gaia emanda, 6 puntu edo gehiagotakoak
- gartzelako lana:

bertso bana lehen puntua emanda, zortziko txikian
bertso bana azken puntua emanda, zortziko txikian
hiruna bertso neurri librean, gaia emanda.

EPAIMAHAIA:

Anton M. Aldekoa-Otalora
Trino Azkoitia
Luis Baraiazarra
Abel Muniategi
Iñaki Sarriugarte

IDAZKARIA:

Karmen Marina Arteagabeitia

GAIJARTZAILEA:

Bernardo Mandaluniz

4.- PARTE-HARTZAILEAK

Hogeitahiru bertsolarik hartu dute parte txapelketa honetan. Euretarik lau, artez sartu ziren finalaurrekoetara 1987ko Araba eta Bizkaiko txapelketan finalera heldu zirelako: Haritz Lopategi, Jon Enbeita, Juan Mari Areitio eta Ireneo Ajuria. Beste guztiak hiru kanporaketatan neurtu ziren lehenengoz: Mungia, Lekeitio eta Orozkon. Kanporaketa hauetan ondoen puntuaturiko zortzi lehenak finalerdietara pasa ziren aurreko txapelketan finalista izan zirenekin batera. Finalerdiak Gernikan eta Durangon izan ziren eta handik zortzi bertsolari pasa ziren Bilboko Arriagan egin zen finalera.

Hona hemen bada, parte-hartzaileak nortzu izan diren:

5.- PUNTUAKETA

Kanporaketak:

MUNGIA 90-XI-11

Jose Luis Basterretxea "Altzalei"	342,5
Moises Enbeita	331,5

Faustino Etxebarria	293,5
Iñigo Gojenola	351
Maki Aurrekoetxea	315
Serapio Lopez	330,5

LEKEITIO 90-XI-18

Juan Mugartegi	321
Abel Enbeita	355,5
Juanjo Respaldiza	345,5
Ainhoa Munitxa	336,5
Iñigo Olabarri	317,5
Jabier Arriaga "Txiplas"	360,5
Zigor Enbeita	306

OROZKO 90-XI-25

Basilio Pujana	285,5
Gregorio Larrañaga "Mañukorta"	370,5
Txabi Ajuria	321
Igor Elorza	346,5
Unai Iturriaga	351,5
Rikardo Gonzalez de Durana	343

Finalerdiak:

GERNIKA 90-XII-2

Rikardo Gonzalez de Durana	419,5
Unai Iturriaga	447
Igor Elorza	463,5
Juan Mari Areitio	427,5
Ireneo Ajuria	452,5
Juanjo Respaldiza	427

DURANGO 90-XII-9

Jon Enbeita	489,5
Iñigo Gojenola	405,5
Haritz Lopategi	478
Abel Enbeita	438,5
Gregorio Larrañaga "Mañukorta"	453
Jabier Arriaga "Txiplas"	433,5

Finala:

BILBO 90-XII-23

Haritz Lopategi	457
Jon Enbeita	519
Gregorio Larrañaga "Mañukorta"	445,5
Igor Elorza	437
Ireneo Ajuria	466,5
Abel Enbeita	393,5
Jabier Arriaga "Txiplas"	418
Unai Iturriaga	499

6.- TRANSKRIBAKETAREN ERIZPIDE NAGUSIA

Honelako txapelketetan, bertsolarien abestukera nahikoa garbia izaten bada ere, kontuak dira ahozko erregistrotik idatzizkora pasatzerakoan.

Gure erizpide nagusia lan honetan zerau izan da: idatzizko hizkuntzaren arauak ahal den neurrian errespetatuz, bertsolari bakoitzaren ezaugarri eta berezitasunak agertzen saiatzea.

ANTOLAKUNTZA BATZORDEA

Gernika

1990-XII-2

BERTSOLARIAK:

**Rikardo Gonzalez de Durana
Unai Iturriaga
Igor Elorza
Juan Mari Areitio "Gaztelu"
Ireneo Ajuria
Juanjo Respaldiza**

AGURRAK

doinua: Gau eder batek ninduen

Rikardo: Nahiz ta eztulka ibili
naizen ni egun eta gau
zuek agurtu nahiean
honaino etorri naiz rau!
ta txapelketak be badaukanez
zenbait lege eta arau
ni erantzuten saiatuko naiz
katarroak uzten banau.

doinua: Hara nun diran

Unai: Egunon denoi lehendabiziko
zer da baina arraioa!
notizi tristez hurbildu zaigu
kosta aldetik kaioa
Mikel laguna eraman dute
eta ni esaten noa
bere omenez izan dadila
gaur egindako saioa (bir)

doinua: Arratsaldeon lendabizitik

Igor: Egunon denoi aitorpen batez
hasi nahiko nuke garaiz
orain artean egindakoaz
bainago umore alaiz
nahiz ta kantuan garena baino
gehiago izan nahi dugun maiz
zuek gustora geldituz gero
etxera pozik joango naiz (bir)

doinua: Arratsaldeon lendahizitik

Areitio: Zuek gustora eta gu pozik
txikitxo honek esaten du
gure helburua horixe da ta
arrazoia ezin kendu
gu pozik eta zuek guztiok
etxera hala bialdu
besterik ezer ez det eskatzen
hori egingo bagendu (bir)

doinua: Zer da gaur Donostian

Ajuria: Hor ditugu bost artzai
hemen sei axuri
patxara hartu nahian
gabiltza urduri
atera nahi nuke gaur
hainbat jakinduri
dudanetik onena
nahi nuke ixuri
saioa eskaintzen dizut
entzulea zuri (bir)

doinua: Arratsaldeon lendabizitik

Juanjo: Laguntzaileen aipamenak guk
ez doguz egin egundo
Ziorragako errubioa
entrenadore lehenengo
Aiara aldeko bertso-eskola
aitatu behar hurrengo
euren errua izan daitela
hemen ez banabil ondo (bir)

ZORTZIKO HANDIAN

hiruna bertso

Gaia: Zuek irakasleak zarie, eretzi ezbardinekoak. Zuk, Rikardo, umeak gehiago jolastu behar leukeala dinozu. Zu Unai, oster, gehiago ikastearen alde zatoz.

doinua: Arratsaldeon lendabizitik

Rikardo: Jarraitu nahirik une honetan
jarri naiz horri begira
nola erabili eta bidali
gizartearen harira
ume guztiak joaten badira
liburu hoién azpira
ez dira naturalak izango
makinak izango dira (bir)

Unai: Ume guztiak jolasalditik
etortzen zaizkigu bero
injinierorik hoién artetik
nik behintzat ez dut espero
gauza handirik ez dira izango
hola jarraituaz gero
diru gehiegi ez da lortuko
jolasten ibili ezker (bir)

Rikardo: Egunkaritan azaltzen ohi da
hortaz hainbeste albiste
eta zurea entzunik ere
ni jartzen naiz nahiko triste
nolabait ere bizitza ondo
hola ez daiteke bete
zertarako da diru guztia
bizitzen ez badakite (bir)

Unai: Ikasketekin izaten ohi da
gazte denén arazoa
nik ondo dakit liburu artea
ez dela bape gozoa
baina ezagutu behar dituzte
mundua eta auzoa
gaurko ikasketak dira biharko
lanaren lehen pausoa (bir)

Rikardo: Argi ta garbi utzi beharra
dadukagu orain hemen
horretatikan ez datorrela
zorionikan bederen

nahiz eta jarri liburuetan
hainbat indar eta kemen
denentzat ere lanposturikan
inoiz ez dute izanen (bir)

Unai: Geroko lana izaten ohi da
ilusioen aizkora
liburu artean hainbat urtetan
dabiltza behera ta gora
beste irtenbideik ez dagoela
nahi dizut orain gogora
eskola eta gero badute
jolasteko hainbat denbora (bir)

Gaia: Zuek aita-semeak zarie. Zu Igor aita, zu Juan Mari semea. Gaur, aita jubilatzen dan egunean, Juan Mari semea hasten da lanean.

doinua: Pello Joxepe

Igor: Laister lanean hasiko zara
ta ni ezin geldi keto
kontseju on bat emango dizut
horrela baita hobeto
eta aitari kasu egin beti
izan mila errespeto
gaur lan egizu jubilatuta
gero ondo bizitzeko.

Areitio: Oso egoki egin didazu
bizimoduko planoa
horixe baita aita on batek
semearentzat asmoa
horixe baita zure gogoa
baita ere nere asmoa
zuk utzi dezun lantoki hori
beraz ni hartzera noa.

Igor: Nire postua hartzera zoaz
hola dio aitormenak
goizean goizik hasi lanean
ta ahaztu itzazu penak
emandakoaz bota izardi
eta dituzun kemenak
nik ere hola lortu bait ditut
nire egunik onenak.

Areitio: Aita on batek semearentzat
ez daduka asmo txarrik
aita maite hau ikusita nik
ez det egingo negarrik
ta lanerako ez zaizkit falta
gogorik eta indarrik
zuk ein dozuna eiteko ez da
izango askoren beharrik.

Igor: Kontu-kontari hasi garenez
biok begira elkarri
dirudienez hementxe zaude
postu on baten egarri
nik egin nuen behar zena ta

orain zuk zeurea jarri
ta estualditan nagonerako
diru apur bat ekarri.

Areitio: Itxura danez aitak nahi luke
eraman nere ordaina
hola egin du bere helburua
edo beraren kanpaina
hain daukat aita eskaxa eta
hain daukat aita ziztrina
lana ein beharrik nik gaur ez neukan
zu fina izan bazina.

Gaia: Zuek ama-alabak zarie.Irineo zu ama,Juanjo hamazortzi urteko alabea. Gaur, Juanjo alabeak, bere bidea
egin gura dauala dinotso amari.

doinua: Pello Joxepe

Ireneo: Ez ote zara alaba izan
nerekin zorionean
zeure bizitza egin nahi dezu
ahal dan modu onenean
baiezkor nator ez zaite jarri
hola nere baimenean
nahi nun guztia neuk be ein neban
gazte izan nintzanean.

Juanjo: Hamazortzi bat urte daukat ta
hartu dut heldu itxura
ama txoriak ez zaizkit heldu
oraintxe neure burura
badakit nondik ibili eta
ez dago zertan ardura
bizitza zer dan ikasi nahi dut
baina neronen kontura.

Ireneo: Zenbat aholku eta irripar
emon dautsagu alkarri
gure etxeko kabi goxoa
izan da geure lokarri
mundu berrira zu joan zaite
ta zeure bidean jarri
lagun askogaz gozatu zaite
ta bisitatzen etorri.

Juanjo: Neure kontura ikusi nahi dot
munduaren panorama
behar bat ere aurkitutzeko
eginik daukat programa
gauzak okertu egin ezkerro
berriz nator zuregana
askatasuna eman didazu
ta eskerrik asko ama.

Ireneo: Amatzok nahi du bere alaba
zorionez izatea
baina pentsatu errez ez dala
mundu zehar joatea
egunen baten aldrebestua
bada zure suertea

beso zabalik hemen naukazu
zabalik duzu atea.

Juanjo:

Hau da amaren argitasuna
hau da amaren patxada
prejuizio guztiak ere
alboan ditula laga
egunen baten igual joko
dizut etxeko aldaba
mutil bat ere topatu dut ta
biok konponduko gara.

ZORTZIKO TXIKIAN

hiruna bertso

Gaia: Zuek telebista aurrean zagoze. Zuk Unai, "Funtzioa" ikusi gura dozu; zuk Igor, oster, "Tal para cual".

doinua: Nigarrez sortu nintzan

Unai:

Honekin konpontzea
ez da horren errez
telebista aurrean
lehertzen da barrez
musu faltsuak eta
berriro "del revés"
askoz hobeak dira
Teo eta Txarles.

Igor:

Aldatu ta aldatu
hortxe gabiltza fin
"Tal para cual" ikusten
hainbeste ahalegin
hausnarketa egin nahi dut
horko galderekin
gero probak eiteko
nire neskarekin.

Unai:

Konponduko ote gara
baina ez oso erraz
nire "Funtzio"rikan
ez duzu nahi beraz
musuak ikutuak
eta gonak hegaz
lizunkeria da ta
gainera erdaraz.

Igor:

Erderaz dala eta
hainbeste enpeino
diskusioan heldu
gara gaur honaino
"Tal para cual" hobe da
ez euki engaino
lau gixajo saltoka
ikustea baino.

Unai:

Bietan ein dezagun
gaurkoan aproba
susmoa igarri dut
behera eta gora

ta hori esatea
hobe izango da
bera joango litzake
bertara gustora.

Igor: Nik "Tal pa cual" ta berak
"Funtzio"z dizdira
hemen gaudela bata
besteai begira
baina gu bagaitezke
jada erretira
berriketan gaudela
biak buka dira.

Gaia: Zuek zuzendaria eta sekretaria zarie. Zu, Juanjo, zuzendaria eta zu, Rikardo sekretaria. Gaur, lanak amaitu ondoren, Rikardo sekretariak afaltzera konbidatu zaitu Juanjo.

doinua: Mendian bizi naiz ta

Juanjo: Lana amaitu zaigu
eunero moduan
orain hasi beharko
juerga kontuan
zerbait egin beharko
aurrera karruan
nik hau ez nuen sartu
kontratu barruan.

doinua: Triste bizi naiz eta

Rikardo: Nahiz ta zure aldetik
hori ez sinista
aurrezten dut dirua
neronek aldizka
nolabait ere orain
nahiz egin irrista
afaria ordaintzeko
badadukat pixka.

Juanjo: Lana oraindik ere
badaukagu hainbat
eta zeozer hiri
prestatuko dinat
asmoak gerorako
juergan zeuzkanat
irabaziko dun hik
"sueldo extra" bat.

Rikardo: Orain jarri zerade
piztien antzera
aurrera egin beharrez
eginik atzera
izango duzu hori
segurki galtzera
nik gonbidatu zaitut
soilik afaltzera.

Juanjo: Joan gaitezen biok
aldatu baino lehen
aprobetxatutzea

baitago ondoen
zerbait egingo dugu
afaldu ondoren
zuk noiz konbidatuko
itxoiten nengoen.

Rikardo: Zure asmoa eiteko
daude traba batzuk
eta orain nik argi
azalduko dizut
ez duzu ezer egingo
gonbidapenak truk
ezer nahi bauzu bila
zazu beste bat zuk.

Gaia: Juan Mari Areitio eta Irene Ajuria. Zuek lagun bi zarie. Zinera joan eta etxeratzerakoan ateko giltza falta
jatzuela konturatu zarie.

doinua: Lurralde dena dabil

Areitio: Egun guztian hara
ta horra gabiltza
hola doa oin artean
gu bion bizitza
baina etxeratzean
hau da zorigaitza!
Ireneo nun daukak
ate honen giltza?

Ajuria: Ahaztu al dezu neska
haien begirada
giltzik gabe gaude gu
zelako patxara!
Kas-kas jo beharra dut
betiko gisara
ea norbait barrutik
azalduten bada.

Areitio: Aizu horrelakoa
ez zinan lehenago
baina egin dituzu
hiru-lau bat trago
etxera heldu eta
giltzikan ez dago
moxkortuta zagozela
pentsatuzten nago.

Ajuria: Zu kontsolatzen ez da
ene lagun errez
horrelakorik neri
ez esan mesedez
burua zaintzea da
gaur zuretzat onez
inorenik ez dozu
zeurerik ere ez.

Areitio: Nere lagunak ditu
zentzun danak galdu
lau trago edan eta
indar danak ahuldu

era honetan oso
gaizki guk behar du*
nere giltzakin behintzat
ezin lei zabaldu.

Ajuria:

Zu beti izan zara
inoren mirabe
nik ahaztu ditut eta
zer gauza zelebren!
neu egin beharko naiz
buruaren jabe
bakarrik ibiltzea
dut askozaz hobe.

* *dogu*

HAMARREKO TXIKIAN

hiruna bertso

Gaia: *Zuek aurrez-aurre dagozan jatetxe biren jabeak zarie. Zurea, Igor, begetarianoa da. Juanjorena, oster, erretegia.*

doinua: Antton eta Maria

Igor:

Nahiz ta ez duen izan nahi
honek errieta
nirean osasunak
badaduka beta
ta berak kartel handiz
klienteei treta
jarririk urdaiazpi
ta hainbat txuleta
bera be tripa-handi
huts bat dugu eta (bir)

Juanjo:

Negozio batean
egin ditut bueltak
orain etortzen zaizkit
nei diru-errekak
ikasi nituenek
hontarako tretak
exitoa daukate
nire errezetak
Orozkon jaten dira
kristoren txuletak (bir)

Igor:

Berriz zugana nator
pixkat lasai asmoz
askok dio zurea
dela hain apropos
denak irtetzen dira
horren alai ta poz
berriz be hurrengoan
buelatzeko gogoz
damututa ondoren
nirigana datoz (bir)

Juanjo: Inor ez da joango
letxugaren eske
txuletak askoz ere
nahiago dituzte
nire jatetxe honek
badu hainbat ospe
zuretik ateratzen
dira nahiko triste
entsalada ona da
okelagaz naste* (bir)

Igor: Nahiz ta orain baduzun
kontutan patxada
nire asmo guztiak
ezin ditut laga
hainbeste enfermedade
zurekin patxada
guztiak hartzen dute
ondoren ikara
zu zeu ere laisterka
damutuko zara (bir)

* *zegaz edo nogaz naste = zerekin edo norekin batera*

Juanjo: Zeuretik urten ezin
ta zaude elbarri
berdea jan eta jan
gose ta egarri
terkotasun hortatik
behar dozu itzarri
nahi baduzu luzego
pixkatxo bat jarri
luzatuko zara to
neurera etorri (bir)

Gaia: *Zuek senar-emazteak zarie. Zu Rikardo senarra, zu Juan Mari emaztea. Emaztearen soldata, Rikardo, zurearen doblea da.*

doinua: Lagundurikan denoi II

Rikardo: Zure soldatak orain
joa dauka goia
eta horra oraintxe
horren arrazoia
gorputz ederra eta
polita sasoia
hain zuzen ere orain
esatera noia
zu zarela artista
eta ni peoia.

Areitio: Hala behar to ezkondu
ginan egun baten
hau nere bizkarretik
egunero jaten
artista naizela zu
zer zabiltz esaten?
lana egiten dezu
lehertu edo eten

baina jornal haundirik
ez dizute ematen.

Rikardo:

Luzeegia duzu
zerorren mingaina
holakoak esanez
orain alajaina!
nere lana ez bada ere
nahikoa bikaina
lanean egiten dut
gutxinez bik aina
eta ez nazakezu
sekulan engaina.

Areitio:

Bere burua gora
nahi du honek io
horretan egiten du
makina bat saio
baina andre hau berdintzen
kosta behar zaio
ez zerade portatzen
txintxo eta iaio
ezertarako ere
ez dezu balio.

Rikardo:

Irainka hasi zera
azken-azkenean
senarra jarri nahirik
zerorren mendean
baina erantzuteko
naiz aldamenean
egiten dakidala
hola ta lanean
kontrakoa frogatuko
dut nahi duzunean.

Areitio:

Honek kontatu behar
beraren azainak
nahi ditulako hartu
andrearen gainak
baina hauek zer diran
gu gaude jakinak
hain dira petralak ta
hain dira ziztrinak
ia gizon guztiak
zarete berdinak.

Gaia: *Zu Ireneo, zaharretxean egonik, gaur bere, mozkor-mozkor eginda zatoz. Unai, zaharretxeko superiora honek, agirika egin deutsu.*

doinua: Bertso berri batzuek

Unai:

Gabaz etorri ohi da
ta goizetik irten
asilo hontan behintzat
ez du bape jaten
agure gixajoai
banoa esaten
bape listoa behintzat
ez duzu ematen

lehen txarto zeunden eta
oraindik edaten.

Ireneo:

Argitasun askorik
ez dozu buruan
gertatu dana gaur be
egin behar nuan
kontu-kontari nengon
taberna onduan
neure lagunarekin
betiko moduan
beste ilusiorik
ez daukat munduan.

Unai:

Nola pasillo hontan
geraden gaur batu
puntu batzuk argiro
nahi ditut aipatu
kristaua zarela ta
nola dudan aitu
errtolika honekin
nahi nuke amaitu
Jaunak baino lehenago
eramango zaitu.

Ireneo:

Nondik atara dozu
holako inkesta
neretzako daukazu
makina bat kezka
konbentu hortan ez da
neretzako festa
zuk etortzerakoan
ein dozu protesta
komeni dan tokian
aldaparik ezta.

Unai:

Asilo hontan hainbat
urtetako lana
ez da erreza izaten
agure hauen zama
nik esan dizut eta
nezakeen dana
ezinezko dakusat
gaur be gure plana
"Magno" a aterata
egin erdibana.

Ireneo:

Ez dakizu edaten
leiteke kaltean
espabilatu zaitez
halako batean
ni pozik bizi naiz ta
umorez batean
laguntzako ez zaitut
izan gaur artean
mesedez utzi zazu
bizitzen pakean.

- 1/ LEHEN PUNTUA: Bizkaiko bertsogintzan
badatoz loreak
- 2/ AZKEN PUNTUA: Gernikarekin gertatu zana
barriz gerta ez dakigun
- 3/ GAIA: Ikasle izan zinen eskolara irakasle zatoz.

Rikardo Gonzalez de Durana

LEHEN PUNTUA

doinua: Hargin andaluzarena

Puntua: Bizkaiko bertsogintzan
badatoz loreak

Rikardo: batzu zeudenak baino
askozaz hobeak
ezin leizke eduki
betiko gordeak
badituzte ideiak
eta adoreak

AZKEN PUNTUA

doinua: Ilun-lkarak

Frankista haiek erre zuten ta
bere kontra beti jardun
errudunikan ere ez dute
oraindik zigortu inun
hargatik erne egon beharko
dugu guk'e gau ta egun

Puntua: Gernikarekin gertatu zana
barriz gerta ez dakigun.

GAIA

doinua: Leiho ertzetik entzun dezaket

Lanpostu hori emanda gero
poztu nintzen berehala
txikitandiko garai jatorrak
gogoratuak hor hala
besteak legez nintzadelako
mutil bat nahiko normala
nere eritzi zabala
nahiz sarri izan petralla (bir)
orain dakusat irakasleak
guregan zuen itzala
eta uste dut zerbaiteko
behintzat balio zidala (bir)

Mutiko eta neska haiekin
nik hartzen nuen arnasa
gero jostatu ahal izateko
gertu genedukan plaza

ordu askotan hantxe egonik
nahiko bare eta lasa
memoria ez dut eskasa
gogoratzea erraza (bir)
nahiz ta urteak niregandikan
ere jada diren pasa
pentsa zazue eskola hartan
dena ez zela jolasa (bir)

Urte haietan nireganatu
nuen hainbeste birtute
eta beraiek kontserbaturik
hementxe urterik urte
oraintxe ere nator honuntza
zuengan beraren eske
ez jarri oraintxe triste
nahiz txarrak hainbat albiste (bir)
nere ustetan txarra izango
naizenik ere ez uste
irakatsiko dizuet behintzat
ikasi nuen hainbeste (bir)

Unai Iturriaga

LEHEN PUNTUA

doinua: Hargin andaluzarena

Puntua: Bizkaiko bertsogintzan
Badatoz loreak

Unai: lehenago egon direnak
baino askoz hobeak
ondo jantzita eta
oso dotoreak
ta kantatzen dituzte
bertsoak dobleak

AZKEN PUNTUA

doinua: Erreguetan

Zer gertatu zan nola guztiok
daukagun oso ezagun
estranjerutik etorri ziren
ez dakit noren bi lagun
horien alde ez jarri eta
geureari eutsi egun

Puntua: Gernikarekin gertatu zana
barriz gerta ez dakigun.

GAIA

doinua: Arratsaldeon lendabizitik

Hemen ikasten aritu zana

Jadanik ez da mutila
nere maixua izan ohi zana
aspaldian dago hila
baina hoiengan zabaldu nahi dut
haren kontseilu isila
aprobatzea nahi duna behintzat
ondo portatu dadila (bir)

Hura zan hura garai hartako
gogoa eta gosea
etxean lana gero eskolan
gertatu ezin ase
garai hartatik nere maixua
ta baita ere haizea
oraindik ere gordeta daukat
beraren regla luzea (bir)

kaslengana zuzendu behar
errespetoaren truke
ogoratu nahi hemen pasatu
ditudan hainbeste urte
hemen ez ginan gixarajoak
ez ginan ezta ere duke
prakak bajatu eta zer dudan
ikusiko bazenute (bir)

Igor Elorza

LEHEN PUNTUA

doinua: Hargin andaluzarena

Puntua: Bizkaiko bertsogintzan
badatoz loreak

Igor: lehengo zimelak baino
askozaz hobeak
bertso kantuan beti
horren dotoreak
doinu alaiaz eta
fallorik gabeak.

AZKEN PUNTUA

doinua: Arratsaldeon lendabizitik

Aro bateanEuskal Hernia
izan gendun nahiko ilun
burua altxatzen kemen askorik
guk ez gendun ia inun
egun hauetan bezala orain
gogor jarraitu dagigun

Puntua: Gernikarekin gertatu zana
barriz gerta ez dakigun (bin)

GAIA

doinua: Egun lanerat abiatu zait

Ikasle aroan izan ondoren
nik ez dakit zenbat ospe
irakasle lez orain banator
gezurra denik ez uste
baina ikasleok ona naiz eta
lasaiki egon zaitezte
ez baituzue sufritu behar
nik sufritu nuen beste.

Berriro ere aitorpenakin
banatorkizue garaiz
irakasle on bat izango naiz
pentsatu izan nuen maiz
gaur ikasleak aurrean ditut
ta egon umore alaiz
sekula izan duzuen maixu
onena izango bait naiz.

"Maixu ona naiz" hola izan da
nire lehenengo aitorpena
baina oraindik zuek ez pentsa
esana dudarik dena
gaizkitxo ere izan behar naiz
nahiz ta askotan izan pena
hoberenetan onena naiz ni
baina txarretan txarrena.

Juan Mari Areitio

LEHEN PUNTUA

doinua: Hargin andaluzarena

Puntua: Bizkaiko bertsogintzan
badatoz loreak

Areitio: kontatzen hasi zara
hoien baloreak
eta ikusten gaude
horren ondoreak
hemen atzean ditugu
holako loreak.

AZKEN PUNTUA

doinua: Egun lanerat abiatu zait

Herri honekin zer gertatu zan
danontzako da ezagun
herri guztia kiskali eta
hil ziran hainbat euskaldun
abertzale ta bihotz degunok
alkarri ein daiogun lagun

Puntua: Gernikarekin gertatu zana
barriz gerta ez dakigun.

GAIA

doinua: Hirurogei ta hamasei urte

Haurtxoa izan nintzanetikan
pasa da hainbat denbora
bizitzan zehar hor ibili naiz
nunbait behera eta gora
gaur irakasle lehenago ikasle
izandako ikastolara
zenbat gogoeta ta oroitzapen (bir)
datorren nire gogora.

Ikastola hontan ikasle izan
nintzan ni denbora baten
nola edo hala gure denbora
hementxe gendun ematen
garai hartako kontuak ez da
oso erreza esaten
saiautuko naiz nik ikasi (bir)
ez nuana irakasten.

Nere begiak denbora haretan
nola ditudan jarriak
ikastola hontan gertatu ziran
kontu ilun ta larriak
Francon denborak ziraden eta
benetan penagarriak
ea hobeto hezitzen duzen* (bir)
gaurko gaztedi berriak.

* doguzan

Ireneo Ajuria

LEHEN PUNTUA

doinua: Hargin andaluzarena

Puntua: Bizkaiko bertsogintzan
badatoz loreak

Ireneo: hemen azaldu dira
oso dotoreak
kanta dituzte nahiko
bertso zelebreak
horrek izango al dira
gu baino hobeak.

AZKEN PUNTUA

doinua: Arrutsaldeon lendabizitik

Makinatxo bat nahaste badago
Euskal Herrian gaur egun
hala ta ere tinko beharko
euren bidetikan jardun
zatitu gabe ibil gaitezen
anaiak alkarren lagun

Puntua: Gernikarekin gertatu zana
barriz gerta ez dakigun (bir)

GAIA

doinua: Begira nago jarria beraz

Gaztetan nuen ilusioa
ez dakit nola buztartu
baina aukera iritsi da ta
erabakia dut hartu
eskilaratik goruntz noala
zenbat gauza bururatu
oraintxe naiz konturatu (bir)
baina egitan nere barrena
nik gura badut lasaitu
behar bezala egin behar dut
nere eskola ondratu (bir)

Gogoia daukat ez da izango
hori neretzat nekeza
horretarako ikasia naiz
ta badaukat interesa
gaztetxoari erakutsiaz
eskeini nere babesa
nahiz eta ez dan erreza (bir)
hautatu naute eta herriak
hori argi euki beza
nahiago nuke maisu zaharraren
beste neuk ein ahal baneza (bir)

Aukera hauxe izan da nere
poza eta atsegina
derrigorrean loretu behar
dut aurrean dan jardina
gau eta egun beraren alde
nik egingo dut ekina
hori ondo da jakina (bir)
pasako ditut atsekabeak
eta hainbat esamina
baina ahal danik ondoen eiten
egingo dut ahalegina (bir)

Juanjo Respaldiza

LEHEN PUNTUA

doinua: Hargin andaluzarena

Puntua: Bizkaiko bertsogintzan
badatoz loreak

Juanjo: mutiko gazteak ta
bertsotan nobleak
botatzen dituztela
bertso dotoreak
eta sarri askotan
guk baino hobeak.

AZKEN PUNTUA

doinua: Hara nun diran

Urte haietan guzti-guztia
ikusten ei eben ilun
hainbeste jende umezurtz eta
beste hainbeste alargun
gure herriak ederto daki
zer bide segi behar dun

Puntua: Gernikarekin gertatu zana
barriz gerta ez dakigun (bir)

GAIA

doinua: Begira nago jarria beraz

Bizitzak beti ekarri ohi du
beraren pasadizua
urte batzutan ez pentsa hemen
izan zan paradisua
kosta zitzaidan gaititzen ere
notaren enbarazua
beti suspentsion kasua (bir)
baina halere beti aurrerantz
eman nuen nik pausua
jakin zazue zuek ikasle
ta ni naizela maisua (bir)

Jan behar horrek maisutzaraino
ere ekarriak gaitu
eta nahi nuke ahalik ondoen
nire beharra kunplitu
nire lezio guztiak ondo
beharko dira aditu
buruan hartu ta kitu (bir)
hala ta guztiz hauxe esaten
beharko dut atrebitu
urte haietan nik eiten nuen
hainbeste ez suspenditu (bir)

Banekien nik hona helduko
nintzatekela ondoren
eta horrela irriki biziz
lana hasteko nengoen
orain nik esan ditudan danak
segi behar dira hemen
zuek jarri hainbat kemen (bir)
neure denboran esaminetan
txuletak eiten nituen
baina harrapau behar zaituet
hori baitakit ondoen (bir)

AZKEN AGURRAK

doinua: Gaiso nengoen joan dan aspaldin

Rikardo: Bertso-saioa hasia dugu
lehenago nahiko suabe
bukatzerako ere gabiltza

une hontan nahiko bare
eta hemendik berora orain
egin behar dugu alde
ni hurrengoan etorriko naiz
baina katarrorik gabe.

doinua: Arratsaldeon lendabizitik

Unai: Txapelketako erakargarri
ginaden hainbeste gazte
hasieratan onak ei ginen
ta gero ez horrenbeste
zer garen ondo dakigu eta
ez gatoz tributu eske
honaino heldu gerade behintzat
ta pozik joan gaitezke.

doinua: Arratsaldeon lendabizitik

Igor: Azkenengo ronda honek beraz
agurra behar du izan
esan dut nire asmoa zuek
gustora gelditzea zan
eta gustora bazaudete arren
jo txaloak zoro gisan
eta horrela ez baldin bada
gutxienez baietz esan (bir)

doinua: Esnezaltsailearena

Areitio: Denori agur eta
bagoaz ihesi (bir)
eskolan jardun arren
ez naiz asko hezi
naizen apurra ere
ez det eman kasi
era horretan nabil
ni beti "no" ta "si"
gaztetxo hauengandik
badet zer ikasi (bir)

doinua: Kantatzera nijoa

Ireneo: Duzue pazientzi
ta hainbat ganora
guri txaloak jotzen
hainbeste denbora
gaurkoa bukatu da
denontzat nahiko da
atsedena hartuta
danok Durangora (bir)

doinua: Arratsaldeon lendabizitik

Juanjo: Lehenago egin dogu hementxe
laguntzailen propaganda
parkazinoa eskatzeko be
heldua da nire txanda
nerbio batzuk hortxe egon dira
barrutik dinbi ta danba
egin ditudan huts guztietan
neure errua izan da (bir)

Durango

1990-XII-9

BERTSOLARIAK:

Jon Enbeita

Iñigo Gojenola

Haritz Lopategi

Abel Enbeita

Gregorio Larrañaga "Mañukorta"

Xabier Arriaga "Txiplas"

DURANGO

1990-XII-9

doinua: Ai Belgika Belgika!

Jon: Durango liburu eta diska
artegintzaren solasa
Durango bertso ta txalo-hotsa
hitz neurtuaren jolasa
egun hauetan zeuk daroazu
Euskal Herriko konpasa
mila zorion to zuk entzule
ahal badozu ondo pasa.

doinua: Arratsaldeon lendabizitik

Iñigo: Hitz emandako zerbait betetzen
hartu beharko dut beta
kuadrila bat hor da igandero
aje guztiak aldetara
zuen omenez izango da gaur
nire bertso-berriketa
hori baino zor gehiago ere
badaukat zuekin eta (bir)

doinua: Arratsaldeon lendabizitik

Haritz: Mungialdean hasi zan eta
Durangoraino ez da eten
ta berton hasi beharko dot nik
neure apurra emoten
txapelketaren lokomotora
dator abiada baten
ea dakarren martxa honekin
montatu ote naiteken (bir)

doinua: Arratsaldeon lendabizitik

Abel: Agur entzule paregabea
zuekin jartzen naiz pozez
saiorik saio izan bait zara
gure bertsoaren gosez
gu ilusioz jarrita berriz
zuen txalo bero hotsez
gaur ere zuei esker gatoz ta
eskerrik asko bihotzez (bir)

doinua: Iparragirre abila dela

Mañu: Jaunak egunon ongi etorri
hainbeste euskaldun fin hor
diadarka to txalo-beroka
giro jator bat nahirik lor
hemengo eta hango
bete zaigu Durango
ta portatu nahi det jator (bir)
Euskal Herriko bertsozalentzat
nik badaukat hainbeste zor.

doinua: Bizi guzian borroka baten

Txiplas: Kanturako prest txarto ez banago
hamabi hanka ta sei buru
geure artean ea sortzan dan
hainbat saltsa eta gudu
hori da gure helburua to
ea hemen lortzen badugu
hanka puntetan hotz dugu baina
mingainak bero ditugu.

ZORTZIKO NAGUSIAN

Gaia: Jon Enbeita eta Iñigo Gojenola. Zuek zinegotziak zarie. Zuen herrian hutsik dagoan etxe bateri buruz dator eztabaidea. Zuk Jon, gazte-etxea egin gura zeunke; zuk Iñigo, oster, jubilatuen egoitza.

doinua: Arratsaldeon lendabizitik

Jon: Etxe bat libre izatea da
guretzako poztasuna
baina gogoko ez da laguna
zuk gaur esan deustazuna
zaharrentzat barik gazteentzat da
guk egin behar duguna
beraien esku baitago gure
biharko etorkizuna (bir)

Iñigo: Gaurko gazteen izakera hori
dago guretik aparte
"txupa" beltzekin ibiltzen dira
kalez kale narraz kate
lehen ere etxe hartan apurtu
dituzte leiho ta ate
zaharrak berriz etxetxo baten
falta haundia daukate (bir)

Jon: Bakoitza bere etxean dago
zaharra ondo ta seguru
ta gazteekin gerora ere
zeregin asko daukagu
gazte-etxe bat etorkizuna
eraikitze hori dugu
dana einda dau oker daudenak
oneratzen baditugu (bir)

Iñigo: Oneraezin antzematen dut
gaurko gazteen ganora
beste gaztetxe batzuk ikusi
eta zerorrek konproba
etxetxo hori konponduz gero
behetik hasi eta gora
gazteak joan ta lizunkeriz
beteteko izango da (bir)

Jon: Lizunkeria beti izan da
oso gauza itsusia
penagarria kaletan zehar
gau ta egun ikusia
etxe honekin nik gura neuke
kendu maltzurtar guzia
gaurko gazteen heziketan da

gure hil edo bizia (bir)

Iñigo: Ez zait batere ondo iruditzen
zuen ahotik entzuna
konponketa bat ahal dan ondoen
da hemen behar duguna
etxe horretan egin ezkerro
gazte ziztrinen bilduma
nora joango da baserri puntan
dagoen xahar alarguna (bir)

Gaia: Zuek politikagintzan zabiltze aspaldi honetan. Zu Haritz, hiru bider izan zara aukeratua beti partidu ezbardinean egonda; zu Abel, beti egon zara partidu bardinean baina ez zara behin ere aukeratua izan.

doinua: Arratsaldoen lendabizitik

Haritz: Hauteskudetan beti heldu naiz
lehenengo postutaraino
eta neureak emoteko be
gelditzen jatez ondino
gure herriak nirekin baitu
hainbat ames to enpeino
jendeak gehiau maitatzen nau ni
edozein partidu baino (bir)

Abel: Batetik eta bestera dauka
beti hamaika aitzaki
hiru partidu pasatu ditu
ta denetan erabaki
zer esan behar gaur nik holako
mutiko gauzeztan bati
gauz onik ez du egiten baina
txaketa aldatzen badaki (bir)

Haritz: Hiru biderrez aukeratzea
ene lagun ez da broma
urte hauetan lortua dut nik
neure fama eta sona
hainbat auzo ta hainbat kaletan
beti izan bainaiz ona
txaketa ezberdin ta guzti ere
gizona beti gizona (bir)

Abel: Politika ez da ene laguna
azoka edo feria
hemen behar da beti ta nunnahi
esan ta zabal egia
nire lagunak ez dakit baina
badu bere aberia
honelakoen eskutik dator
herriaren miseria (bir)

Haritz: Inbidiatan erretzen dago
bere bihotz eta begi
argumentorik ez dauka eta
insultua bai ugari
mesede zeinek egiten deutson
herria baitago adi
hurrengoan be neu izango naiz
geure herriko lehendakari (bir)

Abel: Hori entzunda hara buruan
badut hainbat oroitzen
hiru txaketa aldatu ditu
han harrapatu hemen ken
lehendakaria izango dala
ausartu zaigu esaten
gaur eztaizun dan ta hurrengoan
seguru dagola PP-n (bir)

Gaia: Zuek bertsolariak zarie. Zu Mañu, librean kantatzearen aldekoa zara:zu Txiplas, oster, gaijartzaileagaz
gustorago sentitzen zara

doinua: Basatxoritxu

Mañu: Nere lagunak hor beti dauka
gai on baten egarria
ta Mañukortak berarena du
aitonaren iturria
nun zer komeni dudarik gabe
beti ongi igarria
nik gai librean zerbitu nahi dut
neu bizi naizen herria.

Txiplas: Honek ez du nahi here ondoan
ez gaijartzaile ez etsai
bere moldara ibiltzen zaigu
erdi baldar eta alai
gaia jarrita kantatzeko ez da
edonor izaten gaur gai
honek gai libre batik nahi du ta
doinu ta neurria ere bai.

Mañu: Doinu ta neurri ta asko esan
nik ditut erabakiak
gazte alaiak irripar gozoz
aitonaren bekokiak
gai libre honek ikusten ditu
entzule klase guztiak
ta Mañukortak ematen daki
bere gustoko jakiak.

Txiplas: Gaia jarrita egiten ditut
hortan neure ahaleginak
batzutan hola izaten dira
euren nahiak ta ezinak
horrexegaitik gairik ez du nahi
nere alboko lagun minak
gaia jarrita be kantatzen dauz
betiko bertso berdinak.

Mañu: Nik gaiarekin bertsosai asko
ikusten ditut itsusi
ta herriari gaizki eiterik
jaunak ez luke merezi
bakar-bakarrik kantatu lasai
alaiak eta berezi
zuk'e nahi badezu nekin etorri
eta kantatzen ikasi.

Txiplas: Danetarako prestua nago
behin tokira iritsita
bertsolaritzan beti izan naiz
arlo danetan polita
alboko honek libre hutsean
besterik gaur ez daki ta
nik berdin-berdin librean eta
edozein gai txar jarrita.

ZORTZIKO TXIKIAN

hiruna bertso

Gaia: Iñigo Gejoenola eta Haritz Lopategi. ETB-rako saio batean milioi bateko saria dago larrugorrian agertzeagatik. Zuek biotatik nor joango ete da?

doinua: Kantatzera nijo

Iñigo: Telebistan premio
guk hemen disputa
nor agertuko ote den
arropa kenduta
eztabaida hau laister
dago bukatuta
zu ez zaitez agertu
txikia duzu ta.

Haritz: Ez zait asko gustatu
zure erretolika
faltatzen hasi zara
hona etorrita
ez al jatzu gustatzen
nire erreminta
txikia daukat baina
ziero* polita (bir)

Iñigo: Lupa batekin hori
ikusiko nuke
baina hemen ez daukat
hainbeste birtute
ta gainera aitaren
larrua baduzupe
tximinoa zarela
pentsatuko nuke (bir)

* zeharo

Haritz: Hala ere han agertzeko
badaukat indarrik
ta zure hitz guztiak
dituzu alperrik
inork ere ez baitauka
nik bezain ederrik
milioi bat balio du
berorrek bakarrik (bir)

Iñigo: Hortan saiatu nahi du
belarri ta buru

itxura danez ez du
hainbeste apuru
milioia beretzako
omen da seguru
zu agertu ta biok
banatuko dugu (bir)

Haritz: Neure dirua zeuk be
jaso nahi zenduke
nire gorputzak badu
hamaika birtute
ta telebistara neuk
joan behar nuke
edozer egiten da
milioi baten truke (bir)

Gaia: Zu Jon, zure lau seme-alabakaz pasean zoazela, hara non sartzen jatzuzan jostailu-denda batera. Hemen datortzu Txiplas dendaria.

doinua: Kantatzera nijo

Txiplas: Jugeteetan bada
makina bat moda
aukeratzen ez bota
hainbeste denbora
badaude muñekatan
zenbait behera-gora
baina zuk zeuk erosi
aurreko tratora (bir)

Jon: Hamar mila jugete
beste hainbat seilu
haurrak dirala eta
hamaika istilu
baina alperrik zabiltz
dendari kankailu
lau hurrekin badaukat
nahikoa jostailu (bir)

Txiplas: Hona sartu ta gero
hainbeste algara
umeak be bueltaka
makina bat traba
dana endredatuaz
hona eta hara
zertan etorri zara
zu nire dendara (bir)

Jon: Zuk badakizu haurrak
etorri dirana
ta zuk eurari saltzen
daukazu afana
dana da elektronika
arma-gauza dana
bakea da etxean
nik behar dudana (bir)

Txiplas: Jostailurik ez dau nahi
neu naiz gaur lekuko
honek ikasi ditu

makina bat truko
bakea nahi dabela
hori ezin uko
pentsau behar zenduan
ekarri orduko (bir)

Jon: Ekarri ordurako
ni nintzen prestatu
arreglatuko naiz ta
ez zaite kezkatu
holako jostailurik
neri ezin gustatu
ezer ez dute ikasten
buruak nahastatu (bir)

Gaia: Abel eta Mañukorta. Hona hemen gizon garrantzitsu bi. Abel "George Bush" dugu, Mañukorta "Sadam Hussein".

doinua: Triste bizi naiz eta

Abel: Urte garratzak eta
gogorrak datoz ta
honen burua barriz
arintzea kosta
gerran hasi zan bera
atzerako ezta
gerra nahi ez baduzu
Kuwait-etik ospa.

Mañu: Saddam Hussein ez dago
hain gizon gozua
indar eta armetan
oso erosua
zuk ere kontuz eman
nigana pausua
nik galdu nezake gaur
hor mundu osoa.

Abel: Ederra daukagu bai
lodi ta mardula
hori ezin ukatu
Bush-ek ez sekula
baina bere burua
dauka oso ahula
jakin mundu guztia
kontra daukazula.

Mañu: Saddam Hussein hemen da
argia ta fina
egun baten amatxok
mundura egina
danai eman neikie
bihotzeko mina
nigaitik da munduan
dagon gasolina.

Abel: Zergaitik zara baina
horraino iritsi
zure buruko hautsak
behar dira jetsi

lehendiken ere bada
makina bat bitxi
Amerikan aurrean
arren kopla gitxi.

Mañu: Amerikano hauxe
harroa sortuta
nolako armak ditun
pobriei ostuta
baina ni ere nago
ongi osatuta
itto egingo zaittut
potzuan sartuta.

HAMARREKO TXIKIAN

hiruna bertso

Gaia: Haritz LopategietaTxiplas.Zu Haritz jueza zara;zu,Txiplas,hamazazpi bider atxilotua izan dan gizona.

doinua: Bertso berri batzuek

Haritz: Kale hoietan zehar
ibiltzen da hegaz
atsoak atrakatzen
inoiz ez patxadaz
arpegian be golfo
itxurak badaukaz
hamazazpi biderrez
esaten da erraz
zertan zatoz nigana
barriz ere Txiplas (bir)

Txiplas: Ezagunak guztiak
neure inguruan
horrela ibiltzen bainaiz
ni neure munduan
juzgadura joan arren
ez nago apuruan
hantxe egoten bainaiz
leku seguruan
neure etxean bezela
nago juzgaduan (bir)

Haritz: Juzgaduari ez deutsa
egingo honek uko
ez nuen pentsatuko
ezagutu orduko
inoiz aurpegi onez
ez da hurbilduko
juzgadura etxea
bezala ei dauko
hamazortizagarrenan
be ez da zuzenduko (bir)

Txiplas: Laupurretan daramat
nik neure gudua
hola mantentzen bait dut
sarritan burua

nahiz eta juzgadua
ez dan segurua
horra noa ni sarri
hortan dut zulua
juezari ostutzea
da nire helburua (bir)

Haritz: Jendea ezagutzeko
badaukat aukera
baina honekin dator
danontzat galera
beragaz ibili naz
gora eta behera
ta bakean ixtea
igual hobe da
firmaidazu papel hau
ta joan kalera (bir)

Txiplas: Era hortara nabil
hortik urtez urte
ta ezin naiz mantendu
hortatik aparte
arlo hortan badaukat
makina bat arte
ta nik ez dut egiten
horrenbeste kalte
agur juez laguna
hurrengora arte (bir)

Gaia: *Jon eta Abel Enbeita. Zu Jon, ospitaletik urtenda, zu Abel, Burlatako brujoarenetik zatozela, herriko plazan aurkitu dozue alkar. Biok bihotzekoak jota zagoze.*

doinua: Len egun argiz geunden

Jon: Bihotzeko mina da
denontzat zorrotza
norberak sentitzea
benetan mingotsa
ospitaletik nator
barruz nago hotza
entzun nahi nuke orain
nik zure aitortza
Burladatikan zelan
dakarzu bihotza.

Abel: Atakea izan nuen
iaz gaurko datan
ta geroztik hor nabil
arnasaren faltan
Burlatara joan naiz
hemen nator bueltan
esango dizut lagun
izan den nolatan
bihotz barria jarri
didate Burlatan.

Jon: Hau da ene laguna
nahi eta ezina

ezin baretu gure
bihotzeko mina
zuk bedarrak dituzu
ta nik medizina
baina alperrikoa
gure ahalegina
ezin dogu aurkitu
inun atsegina.

Abel: Holantxe nenbilen ni
ate denak hertsia
aurrera jarraitzeak
ez zuen merezi
mediku askok nindun
ta sarri ikusi
azkenez Burlatara
joan naiz ihesi
medikuetan ezin
gehiago sinetsi.

Jon: *Gu* ezin gara bizi
lagun gizalegez
egoera hau ez da
eroaten errez
betetikan bestera
eskean negarrez
biok ere gabiltza
banan nahiko nekez
sinetsi erain baina
inork sendatu ez.

Abel: Bihotza gaixoa zen
gainera zeharo
luzaro ibili naiz
minaren esklabo
medikuak ikusi
ta askoz txarrago
zertarako jarraitu
hain nengon arraro
medizinarik gabe
sendatuta nago.

Gaia: *Iñigo Gojenola eta Mañukorta. Iñigo, zuk gorbatea astegunean jazten dozu; Mañu-k, oster, domeka eta jaietan.*

doinua: Antton eta Maria

Iñigo: Lantegian badaukat
hainbat errespeto
bertan naiz zuzendari
edo ta antzeko
denak nire azpian
eta keto-keto
han gustora naizenik
ez duzu usteko
igandetan ez dut nahi
dexente jazteko (bir)

Mañu: Eskolarikan gabe
txulo itxurakin

danai agintzen dabil
ni hemen nabil fin
odolak ere neri
eiten dit irakin
gure artian bada
hainbeste ezjakin
golpeik ein gabe dabil
hau gorbetarekin (bir)

Iñigo: Zure kontra dijoa
nire abestia
korbata saman ez da
ez horren ezia
txandalez beteta dut
etxeko saskia
korbata saman lehen be
dut nahiko askia
sama mintzeko nahiko
dut aste guztia (bir)

Mañu: Ondo esanarekin
dauka abusua
horretako badezu
bide erosua
gorbetak traba egin
emateizu sua
ta oingoz aitu zazu
nere abisua
hori harrika bota
ta jantzi buzua (bir)

Iñigo: Zuk be buzuarekin
baduzu patxada
baina asteburuetan
albo baten laga
korbata jantzi eta
hona eta hara
itxura danez zuri
ez dizu eiten traba
nik neuk ez dut jantziko
derrigorra ez bada (bir)

Mañu: Lantegiko buzuak
ta zikin-usaiak
egizko mutil batek
gaur ditu etsaiak
bi egunik astian
libre ta lasaiak
ligatzeko morena
rubia hobiak
gorbatakin pasatzen
ditut ongi jaiak (bir)

GARTZELAKO LANA

1/LEHEN PUNTUA: Badaukagu Durangon
zer irakurria

- 2/ AZKEN PUNTUA: Hau ikusita esan daiteke
ez gagozala galduta
- 3/ GAIA: Lantegian, berrogei urte emon dozuz
peoitzan. Gaur, zure semea, zuzendari
datortzu enpresara.

Jon Enbeita

LEHEN PUNTUA

doinua: Hargin andaluzarena

Puntua: Badaukagu Durangon
zer irakurria

Jon: euskaldun kultura da
honuntz etorria
hauxe da guztiontzat
berri pozgarria
berbizte gisan dago
denontzat jarria.

AZKEN PUNTUA

doinua: Hara nun diran

Esaten dabe euskal kultura
dago gaixo ta ahulduta
baina Durangon ikusten dogu
bi besoak zabaldua
Euskal Herritik jendea hemen
kultur egarriz bilduta

Puntua: hau ikusita esan daiteke
ez gagozala galduta (bir)

GAIA

doinua: Berriro ere zuloan

Berrogei urte luze latzetan
emona naiz peoitzari
fabrika hontan hainbat ordutan
nagusien zerbitzari
eta hara nun aurkitzen naizen
zoriontsu ta kantari
nire aurpegian ez al duzue
gaur irriparra nabari
neure izerdiak neure semea
egin bait du agintari (bir)

Zuk badakizu agintaritza
nahiko bide latza dela
kontzientzian bete egizu
edo gaur utzi bestela
zure aurrean grasaz beterik
duzu aitaren txapela
esan nahi dautsut ez izateko

ez harro ta ez ergela
ta menpekoak zaindu itzazu
zeure etxeakoak bezela (bir)

Nire bihotza ezin da egon
gaur dagon baino pozago
nire lanaren frutu garbia
aurrean ikusten nago
baina fabrikan ez bedi inor
izan inoren esklabo
ehun ta hamarren jokabidea
zeure eskuetan dago
baina ez zara nortasunean
peoi bat baino gehiago (bir)

Iñigo Gojenola

LEHEN PUNTUA

doinua: Hargin andaluzarena

Puntua: Badaukagu Durangon
zer irakurria

Iñigo: hartu beharko diot
horri neurria
liburu-txorta ez da
batere urria
irakurtzen pasatu
Azaro ta Urria.

doinua: Hara nun diran

Ez gaude ahal dan ondoen baina
ez gaude danok ahaztuta
bertso-lehia bat dagoela ta
jende mordoak bilduta
behetik gorarte bete zaigu hau
ia lurra ere jo du ta

Puntua: hau ikusita esan daiteke
ez gagozala galduta (bir)

GAIA

doinua: Arratsaldeon lendabizitik

Zuzendari lez etorri zara
peoitzat ez zan komeni
lantegi txarra gertatu zaio
nilako hainbat gizoni
puesto horretan ez dizut opa
ez neke ta ez agoni
estopa eta fletxa erabiltzen
aspertuta bait nago ni (bir)

Etxe egiten bide garbitzen
hain da lantegi zabala
berrogei urtez hortan aritu
da zure aita apala

ez zazu pentsa egoera hau
horren berezia dala
zure esanak beteko ditut
beste edonork bezala (bir)

Ikasi eta lanpostu on bat
izango duzu seguru
esan nizun ta baita egin ere
nahiz pasa hainbat apuru
zure menpean aurkitzen dira
aita ta bere inguru
halan ta guztiz aita-semeak
izaten jarraiko dugu (bir)

Haritz Lopategi

LEHEN PUNTUA

doinua: Hargin andaluzarena

Puntua: Badaukagu Durangon
zer irakurria

Haritz: ugari liburu zahar
ta liburu barria
hargaitik nago neu be
hona etorria
ea asetzen dodan
nire egarria.

AZKEN PUNTUA

doinua: Zeru altuan zegoen Jaunak

Durangon dagon azoka honek
itzelezko fama dauka
saltzaileak be etortzen dira
hainbat liburu hartuta
erosleak be hurbiltzen gara
inork ezin leike uka

Puntua: hau ikusita esan daiteke
ez gagozala galduta.

GAIA

doinua: Zeru altuan zegoen Jaunak

Lantegi hontan buzoarekin
ez naiz ibili galako
gradu bajaran gelditu gabe
lan egin behar dalako
hara ta hona guztien menpe
beti ibili naiz plako
baina pozten naz seme maitea
zuzendari zaudelako.

Makina aurrean gelditu gabe
beti ibili naiz jo ta su

lehengo nagusi harekin ere
banuen nahiko arazu
hainbat agindu hainbeste bronka
eta hainbeste abusu
zeure menpean daudenak seme
ondo tratatu itzazu.

Buzoarekin aritu naiz ni
beti gogor eskuz esku
makina artean pasatu sarri
hainbat bildur ta arrisku seme maitea langilekiko
beti egon zaite prestu
zure aita zaharra nola ibili dan
sekula ere ez ahaztu.

Abel Enbeita

LEHEN PUNTUA

doinua: Hargin andaluzarena

Puntua: Badaukagu Durangon
 zer irakurria
 bakoitzak hartu behar
 gaur bere neurria
 denon aurrean dago
 azoka jarria
 gure lehengo ta gaurko
 ohitura iturria.

AZKEN PUNTUA

doinua: Kantore berri xarmant batzuek

 Aurrekaldera begiratzean
 arrazoirik ezin uka
 hainbat euskaldun hor eserita
 bertsolaritzai helduta
 gure geroa hamentxen dago
 pausuz pausu garatuta

Puntua: au ikusita esan daiteke
 ez gagozala galduta

GAIA

doinua: Kantore berri xarmant batzuek

 Berrogei urte hementxen nago
 hau da nire irabazia
 nunbaitetikan ereina daukat
 izerdiakin hazia
 baina begira ere semea
 gaurkoz hemen ikusia
 nolatan baina izan zintezke
 hain gazte ta nagusia.(bir)

 Bizi guztia hementxen dut nik
 ene lanakin hedatu

pioitzan beti hara ta hona
ta hori ez da pekatu
nagusi legez zaitue orain
fabrika hontan eratu
gizon bezela portatu eta
inor ere ez gaztigatu (bir)

Bakoitzak dauka mundu honetan
geroaren iragana
eta gaurkoan erreleboa
hara dator niregana
agintzen ondo ikasi baina
hau da aitaren afana
lehendabiziko ondo eroan
ezarri deutsuen lana (bir)

Gregorio Larrañaga "Mañukorta"

LEHEN PUNTUA

doinua: Hargin andaluzarena

Puntua: Badaukagu Durangon
zer irakurria

Mañu: horri begira nago
albotik jarria
lehengo gauza zaharra eta
oraingo barria
indarrez pil-pil dago
gure Euskal Herria.

AZKEN PUNTUA

doinua: Aita jainkoak egin banindu

Hainbeste lagun dago Durangon
gure artian bilduta
nausi ta gazte bata bestiai
bihotz erditik lotuta
horigaitikan gaur Mañukorta
hemen daukagu poztuta

Puntua: hau ikusita esan daiteke
ez gagozala galduta.

GAIA

doinua: Mundu honetan holako gauzak

Asko kostata nik hezi zaitut
nere semetxo laztana
berrogei urtez "Cicautxo" hontan
gogotik egin det lana
zardiakin noiznahi eman det
dudarik gabe ahal dana
lantegi hori ondo ikustia
da gaurkoz komeni dana
seme jatorra ondo aditu

zure aitaren esana.

Gazte jatorrak etorten dira
batere kulpik gabiak
eskola asko ikasi eta
jakindurian jabiak
aita zaharrak'e oso ongi dakiz
lantegiaren legiak
lehengoak onak izan ginan ta
gaurko gaztiak hobiak
behar bezela tratatu zazuz
arren langile pobriak.

Berrogei urte makina hontan
buzo zaharrakin emona
seme jatorra ongi pentsatu
hori nola ez dan broma
gaur agintzen zu hemen zatoz
gazte argi ta sakona
hau da aita zaharra zuri eskatzen
aholku ematen dagona
danen gainetik zu izan zaite
egi hutsezko gizona.

Xabier Arriaga "Txiplas"

LEHEN PUNTUA

doinua: Hargin andaluzarena

Puntua: Badaukagu Durangon
zer irakurria

Txiplas: hortarako dago gaur
azokan neurria
beraz ez daukazue
aukera urria
zabalik dago oraindik
horko iturria.

AZKEN PUNTUA

doinua: Maria Martarena

Nik oso trankil esango nuke
eta gainera oihuka
gure herria norantza doan
inork ezin leike uka
aurrera doa neketsu baina
Euskal Herriko burruka

Puntua: hau ikusita esan daiteke
ez gagozala galduta.

GAIA

doinua: Maria Martarena

Hainbat urtetan hola izan nuen
ez dakit zenbat ardura
zu hona heltzea lehen izan nuen

orain ere nere muga
hainbeste lana hola eginda
zu orain nere lekura
aspaldi baten beste gauzarik
gure etxean ez zan gura

Hainbat urtetan hola ibili naiz
langile on baten gisan
tailer hontara urte asko dala
gogorki etorri nintzan
nere lanari dana eman diot
horixe bai komeni zan
kontseju hau hartu to langilekin
semea zu ona izan.

Izango dozu lantegi honetan
kezka ugari to nahastea
oraindik seme dana ulertzeko
nola zaren hain gaztea
komeni zaizu gaurko giroa
oso ondo ikustea
bete ezazu ondo entzunaz
sindikatoen eskea.

AGURRAK

doinua: Ai Belgika Belgika!

Jon: Joan da nerbioen astuna
ondo nahi to ezin osa
heldu da txarto eginen pena
ta ondo eginen poza
landara berak sortzen baititu
arantza eta larrosa
hala ta ere ni pozik nago
zuek bazarie goza.

doinua: Arratsaldeon landabizitik

Iñigo: Lehenengo berton gero oster
egin dugu kartzelara
batzutan tenplau eta bestetan
hotzik gabeko dardara
itxura danez bazkalordua
iritsia zaigu jada
diruz ezin da ordaindu janak
emango didan patxada (bir)

doinua: Zeru altuan zegoen jaunak

Haritz: Egia esanik ez dakit hemen
itxuran agertu garen
borondatea euki dogula
behintzat badago nabarmen
hainbat istura eta nerbio
agertu ditugu hemen
azken agurra kantatzen dogu
guztietatik lasaien.

doinua: Kantore berri xarmant batzuek

Abel: Elurra ia oinetan dogu
negua da ate-joka
hemen barruan sei bertsolari
nerbioetatik jota
egun eder bat pasa zazue
nik besterikan zer opa
baina etxera joan orduko
danok bisita azoka (bir)

doinua: Neska sar bat tentatzen

Mañu: Saio hau buka degu
zuzen edo bigur
alkarri emanakin
behar hainbat egur
berriro alkartzia
izango da zigur
eskerrik asko danoi
bihotzetik agur.

doinua: Bertso berri batzuek

Txiplas: Nere dioptriak gaur
gora egin dute
hau hemen behintzat gaurkoz
argi utzi nahi nuke
orain antza ez daukat
lehen beste birtute
antiju gabe nator
ta hainbeste kate
baina non jan leike gaur
bezkaria merke (bir)

Bilbo

1990-XII-23

Bertsolariak:

Haritz Lopategi
Jon Enbeita
Gregorio Larrañaga "Mañukorta"
Igor Elorza
Ireneo Ajuria
Abel Enbeita
Xabier Arriaga "Txiplas"
Unai Iturriaga

BILBO

1990-XII-23

AGURRAK

doinua: Kantatzera nijoa

Haritz: Arriagan hasi da
bertsoen feria
ni ere lanerako
ez nator nagia
gure etxean bazan
nahiko komeria
errezatzen itxi dot
famili erdia (bir)

doinua: Barrero ere alkartu gara

Jon Enb. Hastera goaz azken etapan
jarraituz geure haria
egon ezina ta nerbioa
dogu nahiko nabaria
hala ta ere bete nahi geunke
entzuleon guraria
danen gainetik hauxe da gaurko
nik dakardan eskaria
jai hau daitela zorioneko
Gabon jaien ataria.

doinua: Iparragirre abila dela

Mañu: Kaixo lagunak Jaunak egunon
denoi ongi etorria
areto eder hau dana gainezka
ez al da ikusgarria
bete da Arriaga
ixilik ezin laga
sortu nahi degu irria (bir)
ea umorez ospatzen degun
gaurko bazkaldu aurria.

doinua: Nigarrez sortu nintzan

Igor: Arriagako giro
zoragarri honekin
Kanpantxuko hintxada
etorri zaigu fin
onenak ta txarrenak
kantatuta berdin
guk botako ditugu
zuek txalo egin.

doinua: Zer da gaur Donostian

Ireneo: Hau da leku ederra
jendea gainezka
golpera urrundu zait
nerabilen kezka
entzulea aurrean

bertsoaren eska
hau da gure kirola
hau da gure festa
holako operarik
Bilborentzat ezta (bir)

doinua: Iparragirre abila dela

Abel: Mungi aldean aspaldi danik
bertso-trena hartu gendun
ta azkenengo geltokiraino
ekarri gaitu gaur egun
antzokia gainezka
gehiagorik zer eska
hainbat bertsozale lagun
ea Arriagak merezi aina
egoki kantatzen dugun.

doinua: Orioko balearena

Txiplas: A ze kuadrila heldu
garen Arriagara
geuri begiratuta
kontuak atara
ikusi piztiren bat
hemen falta bada
basurde otso ta azeri
danok hemen gara (bir)

doinua: Kantatzera nijoa

Unai: Txapelketa jarraitzen
asterikan aste
ibili dira lagun
bertsolari gazte
gaur Arriaga osoan
dispertsau dituzte
oihu egin gabe egongo
direnik ez uste (bir)

ZORTZIKO NAGUSIAN

hiruna bertso

Gaia: Etorkizunari buruz hasi zarie alkarrizketan. Zuk, Haritz, argi jkusten duzu; zuk Jon, oster, ilun deritzozu.

doinua: Arratsaldeon lendabizitik

Haritz: Etorkizuna dala ta ez dala
astintzen gabiltz barrenak
argi edo ilun biok dauzkagu
jarririk gure eskemak
ez dozu argi ikusten eta
horregaitik zure penak
etorkizuna ederra dauka
gogor lan eiten duenak (bir)

Jon: Lana da egiz etorkizuna
itxartu leiken aldaba

zoritxarrean herri honetan
bada makina bat traba
zail izango da argitzen gure
itxaropenaren gaba
anaiartean gaur arte legez
borrokan ari bagara (bir)

Haritz: Etorkizuna egin daiteke
saiatuaz egunero
sufrimenduak izan ditugu
gure herrian luzero
etorkizuna ilun dala ta
ez zaite jarri hain bero
sekula ez dogu ezer lortuko
pesimista jarri ezkerro (bir)

Jon: Pesimismoa ez da nirea
baizik benetako kezka
sufrimentua eta zigorra
oraindik baita gainezka
kanpokoekin elkartzen gara
ta etxekoei protesta
bide hortatik ene laguna
etorkizun onik ezta (bir)

Haritz: Orain artean gure bizitza
izan da oso astuna
hala ta ere etorkizuna
ez dot ikusten iluna
inork ez deusku ezer emango
saia gaitezen laguna
geuk egin behar izango dogu
geuretzako etorkizuna (bir)

Jon: Zure bestean etorkizuna
nik be argi dot desira
baina hortako esperantza bat
izango banu sikira
geugaz ahazturik jarri artean
aberriari begira
geroan ere Euskadirentzat
kateak izango dira (bir)

Gaia: Zuk, Mañu,alkoholaren menpe luzaro egonda gero,oraintsu itxi deutzazu edateari; zu Igor, edaten hasi barria dan gaztea zara.

doinua: Pello Joxepe

Mañu: Gazte denbora nik pasatu nun
erdi mozkor to tristia
edaten nuen ardao ta txanpan
tekila eta whiskia
erdi loetan ta buruz behera
berdin jai eta astia
bide txarretan sartu zera ta
aldegin zazu gaztia.

Igor: Alkohol edaten badaramazkit
lau bat hil edo inguru
baina menpean ez naiz jausiko

horretaz egon seguru
ostiraletan ahaztu ondoren
asteko hainbat apuru
larunbatetan pixkat edanda
ederto pasatzen dugu.

Mañu: Begiratuta zurekin dezu
aingeru baten itxura
aita ta amak zein mutil ona
hau sortu zuten mundura
galdu zenzake osasun dana
zure herriko kultura
koñak zikina utzi zazu ta
edan itturriko ura.

Igor: Estualdiak pasatu ditut
neronek ere uneka
baina albokoa etorria zait
kontu zaharrekin beteta
zu lasai egon ez zait jausiko
niri gaur gainezka treta
nere burua dominatzeko
bestekoa banaiz eta.

Mañu: Gu ere nunnahi hoiek esaten
sarri ibiliak gera
apurka-apurka ezpairik gabe
zu ere eroriko zera
alkohol zikina nolatan degun
gazte guztien kaltera
hortik alde ta etorri zaite
bide txarretik onera.

Igor: Zuk esandako kontu guztiak
niri ez zaizkit axola
zurito batzuk edan ondoren
berotzen bait zait odola
jakin ezazu nere bidean
argi ta garbi nagola
astean zehar ura edango dut
asteburutan alkohola.

Gaia: *Zuek neska-mutil lagunak zarie. Zu Abel neskea, zu Ireneo mutila; bost egunetan hasarraturik edo barbarik egin barik egon ostean, Ireneok, mutilak hain zuzen, telefonoz deitzen deutsu Abel.*

doinua: *Zeru altuan zegoen Jaunak*

Ireneo: Kaixo neskato ni aurkitzen naiz
sentimentutatik grabe
izan nahi nuke zeure ondoan
neure buruaren jabe
aste honetan izan naiz eta
gure kezkaren mirabe
ezin naiz bizi luzaroago
zure maitasunik gabe.

Abel: Maitasunaren inguru bada
baina lagun hainbat nahaste
egun hauetan hausnartu eta
bizi izan naiz oso aske

gaur telefonoz berriro zatoz
maitasun horreixen eske
lehengoa ahaztu baldin bazaizu
berriz elkartu gintezke.

Ireneo: Zurekin ere nik ikusten dut
makinatxo bat tristezi
bizia joanez ta haserraturik
asko genzake ikesi
toki onetik toki txarrera
zertako joan igesi
maitasunikan ez dan tokian
biziak ez du merezi.

Abel: Sarritan zaigu hori dala ta
gure barrena urratu
mutila edo ta neska berdin
bardin gintezke erratu
nik ere bizi nahi nuke eta
maitasuna dut jorratu
baina tontokeriak medio
ez gaitezela haserratu.

Ireneo: Beraz kezkatu banengon ere
gaur poza eman didazu
nere deiari erantzuteko
gertua jarri zara zu
nere barrena zabalik dago
zurea be hola dozu
tontokeriak utzi daiguzan
elkarri emon bi musu.

Abel: Eskerrik asko ta eskaera
dadukat goxo jasua
ea behin baten bukatzen dugun
bion tarte arazua
telefonoa utzi ezazu
ta azkar eman pausua
atean nago erdi negarrez
zintzilik nere musua.

Gaia: Zuek jubilatuak zarie. Zu Txiplas mutilzaharra, zu Unai zortzi semealabaren aita. Zer da kontua, asiloko atean
elkartu zarie biok leku eske zoaziela.

doinua: Arratsaldeon lendabizitik

Txiplas: Bizitza hontan ibili gara
biok hona eta hara
baina azkenean hona etorriaz
biontzako hainbat traba
ni mutilzaharra ta zu hainbesten
semea izan omen zara
baina azkenean zahartu ezker
gu biok berdina gara (bir)

Unai: Arrazoi osoz mintzatu zara
ene lagun zaharra Txiplas
gazte aroko indar guztiak
jada joan zaizkigu hegaz
ta konturatu zaitezzen zerbait

esango dut semeetaz
herentzia egin behar denean
gogoratzen dira gutaz (bir)

Txiplas: Zure bizitzan lanean gogor
eta orain erdi loka
nik zorionez ez dut egin ez
hemen hainbeste borroka
ta azkenean biok batera
toki holakoan topa
eurentzat hainbat lan egin eta
zulo honetara bota (bir)

Unai: Gizon bakarra eskatzen ohi du
ta egiteko bakarrak
egia esan notizi hauek
izan dira nahiko txarrak
sasoi batean familidunak
izaten ginen edarrak
semerik gabe edo semedun
zaharrak beti zaharrak (bir)

Txiplas: Seme horiek ikasi dute
hemen hainbat ta hainbat truko
zu modu hortan ikusi eta
orain neu nauzu lekuko
zure lan hoiek ez dizute eman
ezertxo ezin leike uko
berriz jaio ta ere zergaitik
ez nintzake ezkonduko (bir)

Unai: Sasoi batean izan nintzena
neskatxentzako lilia
andre batekin ta besterekin
sarri ta maiz ibilia
ta orain leku bakarra dugu
oporren erregalia
bion artean osatu daigun
falta dugun familia (bir)

BAKARKAKO GAIA

Haritz Lopategi

Gaia: Zu, hiru umeren ama zaitugu. Urte pare bat da senarrarengandik banandu zinela eta ondino ez dozu harengandik hogerlekorik bere kobratu.

doinua: Gai horrek badu mamia

Behin hitza emon eban baina
gerora ez du bete
ta golpera itxi deustez
bere leiho ta ate
dirurik harek sekula
ez deust emoten bape
eta umeak jaboten
badaukat nahiko neke
ez deust inoiz ezer eman
joan arren diru eske

senar honek bere umeak
ez ditu asko maite (bir)

Neure etxean daduzkat
hiru umetxo edar
eurak jaboteko badut
nahiko gogo ta indar
senarrarengana joan naiz
ni makina bat bidar
ta umeak jolasean
dabiltz etxean zehar
dirurik egon ez arren
ez eizue egin negar
maite ez zaituen aitarik
ez baitozue behar (bir)

Eskean sarri egon naiz
senarraren atean
nor naizen ikusi eta
zarratu deust golpean
esan behar dautsatez nik
honelako batean
beti ibiltzen baita ha
gu lauron atakean
baina aurrera egingo dogu
atsegin ta nekean
ondo konponduko gara
beti lauron artean (bir)

Jon Enbeita

Gaia: Jon, zu oporretan atzerrira joan zara. Han honako itaun hau egin deutsue: Ze barri Euskal Herrian?

doinua: Munduko ilunabarra

Kanpoko aberri baten
beti hola da izaten
zer barri dogun esaten
saminik ez dogu eten
etsaien menpe hainbat urtetan
ta odolak irakiten
aberrirako maitasun suak
danoi deusku eragiten
bertara joan barik gatxa da
zer trantzea dan jakiten
danen gainetik guk dihardugu
geure borroka egiten
egunen baten Euskal Herria
askatua izan daiten (bir)

Aurretik mila gorespen
atzetik ehun mila ezten
prentsan hamaika onespen
baina ez gaitue miresten
kanpoan dabil gure erdiko
parte txarra erakusten
egia dana ari garala
geu nortasunari eusten
pake itxura zabaldu eta

tranpan ari dira jausten
gezurrarekin ez baita inoiz
gerrate bat irabazten
askatasunik bako bakerik
Euskadik ez du sinesten (bir)

Beti etsaien morrontza
egoera nahiko motza
gainean dogu arrrotza
baina gu ez gara lotsa
bihotz erdian sartuagatik
euren ezpata zorrotza
gure herriak behin eta beti
erantzun bera damotsa
otso aurrean ez da beldurtzen
Euskal Herriko bildotsa
lagun zaitezen zabaldu nahi dot
erbestean gaur ahotsa
zuen laguntzai begira dago
zabalik gure bihotza (bir)

Gregorio Larrañaga "Mañukorta"

Gaia: Zuk Mañu, hamar urteko neskatotxua izanik, gaur bere, betiko lez, eskolatik urtenda, Inglesera, Solfeora eta Baletara joan beharra daukazu.

doinua: Aizak hi mutil mainontzi

Ume denboran itsusi
horretzek ez du merezi
hainbat karrera ikasitzen ni
ari naiz berezi
bada nahiko gaza-gezi
ongi ni nahi naute hezi
eta jolasten behar bezela
ni ezin naiz bizi (bir)

Hau da bizi itsusia
ume baten desgrazia
jolastu nahi ta ezinik dago
nere malizia
hau da gauza garezia
daukaguna plakezia
gauz horigatik umetxo askok
galdu du bizia (bir)

Ingles Baletaz karrera
eskolarekin gainera
hemen lotuta ipini naute
ahuntz zahar bat antzera
hauxe da gure galera
kontuak ongi atera
bakar-bakarrik nahikoa degu
guk degun euskera (bir)

Igor Elorza

Gaia: Jaio barria dan Euskaldunon Egunkariari zure hiru bertsoak

doinua: Gai horrek badu mamia

Egunkariak izanik
hizkuntzetan hain mito
euskaldun honek badauka
gaurkoz nahiko éxito
nahiz ta batzuen ustetan
ez dagoen hain tinko
nik esan nahiko nieke
serio eta siko
bat badaukagunez orain
gurea ta herriko
jaio baldin bada hiltzen
ez dugula utziko (bir)

Lanean izan ondoren
ez dakit zenbat buru
orain bizitzaz baditu
hiru aste inguru
lehenengotatik horrela
hartu bait zen helburu
nahiz ta pasa behar diren
horrenbeste apuru
bizi iraungo duela
denok egon seguru
euskeraz irakurtzeko
eskubidea dugu (bir)

Denbora askoan egonik
egunkari horren zai
bebingoan heldu da eta
egon gindezke alai
segi dezagun honela
serio eta lasai
betidanik egunkari
eder bat baitugu nahi
eta bide on horretan
behar genuke jarrai
hiru astetan iraun du
ta gehiago ere bai (bir)

Ireneo Ajuria

Gaia: Ostera bere heldu jakuz Gabonak

doinua: begira nago jarria beraz

Intxur-saltsa eiten izango dira
amona eta aitonak
eta etxean umearen zai
berdin andre ta gizonak
sukaldeetan mahai danak txukun
jan eta edari onak
karta-joko eta bromak (bir)
Gabonak ondo pasako ditu
aukera hortan dagonak

bezperan gaude ta guztiori
nere partez zorionak (bir)

Baina guztiak ez dauz beteko
janari onan usaiak
beti danikan gogor jo dausku
Euskal Herrian etsaiak
batzuek triste beste batzuek
izango dira alaiak
hola dira Gabon-jaiak (bir)
ta sentipena mugitutzea
eskaten dausku garaiak
nere bertsotan agurtzen ditut
kartzelan dauden anaiak (bir)

Batzuk kartzelan beste batzuek
joan dira urrutira
pentsamenduak izango dabez
askok jira eta bira
Gabon-zorion hau joan bedi
euren bihotzan erdira
hori da nere desira (bir)
gu hemen gaude eta zuek hor
zeuen etxera begira
hurrengo urtean danok batera
etorri Euskal Herrira (bir)

Abel Enbeita

Gaia: Hamabost urtez famili izan ezinik egon ondoren, gaur jakin dozu haurdun zagozana.

doinua: Begira nago jarria beraz

la lanean ere baginan
nolabait zerbait aspertu
itxaropenik nahiz ta sekula
guk ez dugun ez baztertu
ilusioak egin genduzen
eta guztiak okertu
baina hara da edertu (bir)
esan didate ume eder bat
laister daukadala gertu
momentu hontan ez dakit nola
nere zoriona eskertu (bir)

Izango du bai nere partetik
beharko duen laguntza
munduko bizi latz guzti hontan
aurrerapideen bultza
baina hala ere gerta ez dadin
mutiko bat erdi hutsa
kenduko diot nik hautsa (bir)
berakin bakar-bakarrik leike
bete maitasunen kutxa
hortik kanpora ezin berotu
bere amaren gorputza (bir)

Jaio orduko hasiko naiz ni
sehaskatxoai kantari

zoriona ta poza izango
bait dituz hortaz nabari
hala ta ere egin beharko
dizkiot hainbat eskari
galdu ez dadin ugari (bir)
bere bizitza eman diezaion
gure Euskal Herriari
haintzako hartu bere aurreko
hainbat ta hainbat gudari (bir)

Xabier Arriaga"Txiplas"

Gaia: Zure senarra Persiar Golkora bialdu eben soldadu. Handik itultzerakoan gorpu dator.

doinua: Leiho ertzetik entzun dezaket

Derrigorrean joan behar zala
hori gendun aldarria
erdi negarrez eta oihuka
han zan nere eztarria
gainera kontra agertzen bait zan
euskaldunon oinarria
hortaz pentsatzen jarria
orain hain une larria (bir)
hola ikusita betirako be
ixilik nere irria
baina horretaz ez da ahaztuko
kuadrila eta hernia (bir)

Nahi ez ta ere hartu behar zuen
ta egin harako dema
mundu honetan bazegolako
hainbat ta hainbat problema
joan orduan itzalia zan
nik nedukan zoramena
hura negarra ta pena
amaitua gendun dena (bir)
baina itzulera izan genduen
penatsu ta nabarmena
modu horretan heldu beharra
hori izan gendun txarrena (bir)

Hotzikeratan jarria neukan
azala edo larrua
zotinka eta taupada hotsean
gainera neure barrua
joan orduko be izan nuen
horrexen zurrumurrua
baina hau da amorrua
egoera deabrua (bir)
niretzat da gaur neurri hortako
gaitz eta deskalabrua
kapitalisten sistema honek
dauka guztien errua (bir)

Unai Iturriaga

Gaia: Gaia, Unai, ezin leiteke laburrago izan : "Póntelo, pónselo"

doinua: Leiho etzetik entzun dezaket

Kanpaina horri zorion dena
orain nahi nioke opa
nahiz eta batzuk bota dioten
sarritan berorri bronka
horretxen kontra ibili dira
obispo ta abade tropa
eta gu hemen gauz loka
lortzeko gure borroka (bir)
astakeria handiegirik
hemen gaur ezin dut bota
aita ta ama ta familia
oso aurrean dago ta (bir)

Nonbait batzuri eiten diote
gauza hoiek enbarazu
erlazioan badakizue
nola hainbat estrapozu
lehenengo eskua hartzen diote
ta ondoren eman musu
baina hori ez da arazu
eta eidazue kasu (bir)
entzule eta ikuslegoa
gauza oso argi daukazu
Abeli gerta zaiona ez pasa
dadin erabil ezazu (bir)

Nonbait baditu kanpaina horrek
hainbat gora eta behera
batzuk gogoko omen daukate
beste batzuk ez ostera
baina neurean jarraituko dut
gaurko honetan atzera
epea jada bete da
ta jo dezagun aurrera (bir)
esaten dute hartu ezazu
eta eraman etxera
baina noiz kristo euki behar dut
erabiltzeko aukera (bir)

HAMARREKO TXIKIAN

hiruna bertso

Gaia: Zuek neska-mutilak zarie. Zu Igor neskea, zu Ireneo mutila. Santo Tomas iluntzean, zuk Igor Plaza Barrira joan gura dozu; zuk Ireneo, hanburgeseria batera afaltzen joatea dozu gogokoago.

doinua: Bertso berri batzuek

Igor: Gaurkoan ere biok
elkarturik gara
ta afaltzen joateko
harturik patxada
diskusioan hemen
oihu ta algara

baina hanburgesa hoiek
alde baten laga
txorixoa jatera
goazen plazara (bir)

Ireneo:

Goizean han izan naiz
banuen enpeino
txorizo usaina ez dut
nik kendu ondino
goazen beste gauza bat
jaten honek dino
zure joera hori
asko dot horraino
hanburgesa nahio det
txorizoa baino (bir)

Igor:

Hanburgesa ez dut nahi
esana dizut lehen
eta plana egin dut
afaltzeko zeren
plazara joanda hartuz
horrenbeste kemen
txorizoarekin ondo
pasa behar dugu hemen
sagardo pixkatekin
tartekatu ondoren (bir)

Ireneo:

Goizean egin dut nik
jateko edarrik
hortarako ez daukat
gogo ez indarrik
nik ez dautsut egingo
neskato didarrik
inbitaziorikan
gaur ez dozu txarrik
nerekin ez bazatoz
neu noa bakarrik (bir)

Igor:

Ez dakit ez daukagun
hola askoz hobeto
nahiz ta zuri dizudan
mila errespeto
bakarrik joan eta
egon zaite keto
nik pasa behar baitut
gaurkoan ederto
badut beste mutil bat
afaltzen joateko (bir)

Ireneo:

Ez gara ibiliko
ekin eta ekin
nahi dudana egingo dut
behar duzu jakin
preparatua nago
dotore eta fin
joan gura duzula
zuk beste batekin
laister aspertuko da
kapritxosarekin (bir)

Gaia: Zuk Unai, aurtengo loterian hoge mila hogerleko jokatu dozuz. Haritzek, oster, txakurrandirik bere ez.

doinua: Bertso berri batzuek

Unai: Gabonetako gaia
ezingo da eten
esan beharko dut nik be
halakoren baten
hemen dagon jendea
enteratu daiten
boletto bat bera be
honek ez du erosten
ta gero ez zaiola
tokatzen du esaten (bir)

Haritz: Loteriak badauka
hamaika pekatu
zu hor sartuta zabiltz
hasi ta akabatu
sugertea behar da
ezin dot ukatu
zeuk be diru gutxikin
ez dozu jokatu
hala ere ez jatzu
askorik tokatu (bir)

Unai: Nahiz eta tokatzerik
ez nuen espero
sorteo garaiean
banengoen bero
erosi ditut behintzat
berrehun bat numero
konturatu zaite Haritz
bebingo baten edo
zenbat diru dan hori
tokatu ezker (bir)

Haritz: Han kantatzen dituzte
numero ta izen
holako kokoloak
txoratu daitezen
aurten be numeroez
jarri jaku gizen
baina loteriagaz
ez zabiltza zuzen
ezer ez tokatzeko
nik ez dot jokatzeko (bir)

Unai: Ai zenbat artaburu
behar ezagutu
nik berrehun bat numero
banituen batu
eta honek oster
bat bera ez eskatu
nere amak dion legez
nahi nuke kantatu
ez baduzu erosten
ezin da tokatu (bir)

Haritz: Jokorako du honek

hamaika meritu
nik bere afizioa
ezin konprenitu
hainbat diru gastauta
boltsikoa siku
ez dala ezer tokatu
ez han ez aritu
dirua euko zenduen
gorde bazenitu (bir)

Gaia: Gabon gauerako menu ezbardinak aukeratu dozuez. Zuk Jon, marisko eta angulak; Txiplasek, oster, azalorea eta karakolak.

doinua: Antton eta Maria

Jon: Gabona badakigu
aparta dugula
hontaz ez dautsut zuri
Txisplas egin burla
espabilatu gabe
sekulum sekula
urtean behin bederen
ase ezazu gula
karakolak itxita
ipini angula (bir)

Txiplas: Nik afari sinplea
beti dut amesti
karakola ta azak
preparatuz ezti
eta honek mariskoa
gainera garesti
holaxe ibiltzen da
eta ez da aski
baietz mariskoa jan
kaskara ta guzti (bir)

Jon: Karakolak be badau
beraren kaskara
eta hortzetan leike
ipini dardara
zu aldatu gabeko
artaburu zara
noizbait agertu behar
nik neure patxara
pobreak be noizbaiten
ase behar gara (bir)

Txiplas: Harrokeri egin nahian
horrela grazia
baina honek badauka
ondo merezia
horrela dabil eta
ez dago hezia
nik karakolak jaten
holako bizia
honen angulak ezin
nire garraisia (bir)

Jon: Etorri eta zazu

nirekin aproba
damu izango dozu
bestela gerora
marisko ta angula
hau da gaurko moda
orio-aza ez da
gizonen ganora
urtean zehar daukat
hortako denbora (bir)

Txiplas: Bere janari ederrez
hainbeste erronka
hala ere esan behar
ni trankil nago ta
zertarako ibili hortik
kili edo loka
ni aza jan ondoren
bainabil saltoka
uzker handiagoak
nik neuk baietz bota (bir)

Gaia: Abel, Baltasar, Mañukorta Olentzero.

doinua: Lagundurikan denoi

Abel: Marka guztiak behar
ditugu gaur hautsi
nere ondoko honek
ez banau gaur jausi
tripa ederra dauka
daukagu itsusi
nunbaiten ezer ere
ez zaio berezi
Jesus umea ere
ez zuen ikusi.

Mañu: Gizon hau burutikan
gaur ez dago ero
maitasuna jario
nunnahi bero-bero
Euskadin nik baditut
hainbeste bezero
ta erregali asko
ditut honez gero
bete-bete eginda
dator Olentzero.

Abel: Bakit erregaliak
gaurkoz zer dakarten
egun aproposa hau
baitugu izaten
baina ausartu behar
natzaizu esaten
nik mundu osorako
bait ditut ematen
Ta Olentzerok bakarrik
herri txiki baten.

Mañu: Nerekin nik baditut
oso gauza onak

maite ditut txikiak
aiton ta amonak
asko ikusitzen du
honela dagonak
umore biziz jarri
nahi ditut Gabonak
entzule guztientzat
nere zorionak.

Abel: Neu ere ez naukazu
maitasunez trebe
gizaldirik gizaldi
izan bait dut lege
ta horrelaixen nator
aurtengoan ere
baina Olentzero da
makur to xuabe
aurten azaldu baita
zaldirikan gabe.

Mañu: Herriai kendu nahirik
nator zuen mina
ni beti izana naiz
jatorra ta fina
herri eta menditan
ein det ahalegina
ondo zabalduzteko
munduai dotrina
askatasunarekin
dator ikazgina.

GARTZELAKO LANA

1/ LEHEN PUNTUA: Amuriza Lizaso
eta Lopategi

2/ AZKEN PUNTUA: Denborarekin ikusten dira
gizon handien emaitzak

3/ GAIA: Iluntzean, "oiloak otara eta umeak lotara"
esan ohi da . Zure alabatxoak, telebista
aurrean liluraturik ez dauka oherako
presarik. Ea zure bertsoen bitartez loak
hartzen dauan.

Haritz Lopategi

LEHEN PUNTUA

doinua: Hargin andaluzarena

Puntua: Amuriza Lizaso
eta Lopategi

Haritz: hoiekin bagenduen
hamaika komeri

euren ondoan jartzen
nintzan ni urduri
baina gaur txapelketan
ezin dute segi.

AZKEN PUNTUA

doinua: Zeru altuan zegoen Jaunak

Haritz: Gure herria lortu nahiean
dabil askatasun giltzak
ugari dira egin ditugun
borroka eta ekintzak
hainbat gudarik Euskadin alde
eman dituzte bizitzak

Puntua: denborarekin ikusten dira
gizon handien emaitzak.

GAIA

doinua: Leiho ertzetik ikus dezaket

Telebistari begira duzu
hainbat ames eta grina
eta ogera zu eroatea
niretzako da ezina
baina bihar be zure ikastolan
badaukazu zeregina
zu lokartzeko ekina
jarria dut nik jakina (bir)
horrexegaitik kantatzen dautsut
doinu goxo ta atsegina
logura ez zara baina egizu
lokartzeko ahalegina (bir)

Umea ezin ohean sartu
hauxe da nire burruka
ezin izango natzaio ari
hasarre edo oihuka
ogerantz gura neuke eraman
bere besotik helduta
jarri zaite lokartuta
loak gauza ederrak dauzka (bir)
ogean sartu gura zaitut ta
ez egidazu hori uka
zeru gaineko aingeruekin
ames egingo dozu ta (bir)

Berandu da ta ia ogera
joan behar dogu prisan
etz ez zaite zalantzan egon
zure kuartuko gerizan
hor gauza txarrik ez daukazula
gura dautsut zuri esan
lo egitea komeni zan
hain gazte zagozen trazan (bir)
murgildu zaite oge barruan
neskatxo on baten gisan
kuartua ilun egonagaitik
ez zazu bildurrik izan (bir)

LEHEN PUNTUA

doinua: Hargin andaluzarena

Puntua: Amuriza Lizaso
eta Lopategi

Jon: nirelako batentzat
da izen gehiegi
baina euren bidetik
gura neuke segi
ta neuk ere txapela
iltzean eskegi.

AZKEN PUNTUA

doinua: Hara nun diran

Jon: Bertsolaritza ahuldua zuen
gerra osteko ekaitzak
zuk ez zenduzan inoiz onartu
gure etsaien baldintzak
zuretzat dira aita Balentin
nire bihotzaren hitzak

Puntua: denborarekin ikusten dira
gizon handien emaitzak (bir)

GAIA

doinua: Berriro ere zuloan

Galtzen joaku garai bateko
lasaitasun ta patxara
pantaila horren aurrean gagoz
robot batzuen gisara
etxe honetan ene alaba
beste batzuk be bagara
bihar goizean ikastolara
goiztar joan behar zara
hori ez dozu beharrezko ta
zoaz haurtxoa lotara (bir)

Begira dozu ohe zurian
maindirearen magala
deskantsatzeko egina baita
gauak dakarren itzala
bihar goizean esnatuteko
ume barri bat bezala
usteko dozu gure mundua
pantailan bezela dala
baina mundua ez da alaba
holako artifiziola (bir)

Golpe batean irensten dozu
horrek ematen dizuna

sarri askotan propaganda ta
bizitza lasai lizuna
hori ez dozu ene alaba
nik gaur esan nahi nizuna
ikastolan da oraingoz behintzat
zuk dozun eginkizuna
zeure eskutan seguru daiten
biharko etorkizuna (bir)

Gregorio Larrañaga "Mañukorta"

LEHEN PUNTUA

doinua: Hargin andaluzarena

Puntua: Amuriza Lizaso
eta Lopategi

Mañu: hirukote on horrek
horrenbeste egi
Euskal Herri danari
emanaz arpegi
bertsolaritza indartzen
aurrera hola segi.

AZKEN PUNTUA

doinua: Aita Jainkoak egin banindu

Mañu: Faltsokeritan asko agintzen
askok eiten ditu hitzak
gauza onikan honuntz ez dakar
faltsokeriaren hitzak
zer egiten dun ongi pentsatu
goiko mailako bakoitzak

Puntua: denborarekin ikusten dira
gizon handien emaitzak

GAIA

doinua: Mundu honetan hodako gauzak

Alaba maite aditu zazu
zure aitaren albista
izan nahi zaitut asko jakintsu
eskola oneko artista
lorik ein gabe ezin ikasi
bihotz erditik sinista
hartzen dituzu zure eskuan
zuk hainbeste errebista
hurrengorako utzita hobe
ordu hontan telebista.

Ume on batek begin aurrean
egiten du hainbat grazi
lorik ein gabe ibiltze hori
zuentzako da itsusi

ikasitzeko galera da ta
holakoik ez du merezi
eskola eta kultura degu
mundu honetan lehenbizi
ta gero ere izango dezu
telebista noiz ikasi.

Zure aitatzok zuretzat badu
hemen hainbat kontzientzi
bertsoen bidez gaur nahi dizu
bizi dana adierazi
albait txintxoan ibili zaite
eta ahal dana ikasi
danai eutsi ta goiko mailara
ahal baldin bada iritsi
zure eskutan degu Euskadi
hemen bihar edo etzi.

Igor Elorza

LEHEN PUNTUA

doinua: Hargin andaluzarena

Puntua: Amuriza Lizaso
eta Lopategi

Igor: gure alboan hoiek
dirade gehiegi
eskerrak gaurkoz hemen
ez dira ageri
bestela egur ederra
emango zidaten neri.

AZKEN PUNTUA

doinua: Arratsaldeon lendabizitik

Igor: Poztasun eta pena gehiegi
baditu bertsolaritzak
nerbio asko emanak dizkit
niri aurtengo baldintzak
eta hain ondo ez dira joan
gaurkoz hemengo ekintzak

Puntua: denborarekin ikusten dira
gizon handien emaitzak (bir)

GAIA

doinua: Lurraren pean

Telebista horrek gaurko honetan
zuri burua jan dizu
ohera joan zaitez alaba
ta egin aitari kasu
hartu ezazu haruntz bidea
eman ondoren bi musu

edo logura eukiko duzu
ematen dizut abisu
maindire artean sartu zaitez ta
gozo-gozo to egizu (bir)

Telebistaren aurrean zaude
erdi tontaturik neska
batean dela telesaila ta
bestean dugula festa
baina kasua egin eidazu
utzi zazu gaurko kezka
ohera joan zaitez maitea
umore alaiz ta barrezka
kasu eidazu ametsa baino
pelikula hoberik ezta (bir)

Ahaztu itzazu telebistako
barrea eta eztula
ohea baino gauza hoberik
ez baita egin sekula
badakit guk be gazte aroan
antzero egin gendula
baina joan zaitez lasai ohera
ez dizut egin nahi burla
badakit bihar goizean goizik
eskertuko didazula (bir)

Ireneo Ajuria

LEHEN PUNTUA

doinua: Hairgin andaluzarena

Puntua: Amuriza Lizaso
eta Lopategi

Ireneo: hoiek berdindutzea
neretzat zilegi
beti saiatu dira
buru eta begi
nik horren ejenplua
behar nuke segi.

AZKEN PUNTUA

doinua: Kantore berri xarmant batzuek

Ireneo: Sarri haizean joaten dira
munduan gizonen hitzak
hala ta ere batzuek ondo
gorde dabez euren giltzak
momentu baten joagaitikan
goitikan behera ekaitzak

Puntua: denborarekin ikusten dira
gizon handien emaitzak (bir)

GAIA

doinua: *Berriro ere zuloan*

Ene alaba ordu luzeak
telebistan dira joan
eta oraindik hainbat marrazki
dituzu zeure gogoan
loak hartzeko garaia da ta
begira nauzu ondoan
aulki hontara beso-zabalik
nik gura zaitut eroan
ea nerekin jarritzen zeran
loaren amets gozoan (bir)

Txikia zara eta ez dakit
dana dozun eskertuko
zeuri babesa eskeintzen nago
ez dizut egingo uko
hala ta ere pazientzirik
sekulan ez dut galduko
hainbeste bertso kantau beharko dut
zu ondo loak hartuko
baina zuretzat bertso kantatzen
inoiz ez naiz aspertuko (bir)

Telebista hori gustatzen jatzu
geroago ta gehiago
ni ere zuri begira hemen
erdi zoraturik nago
programa danak ikusten zagoz
bat hasi beste akabo
baina hala ere zu zorientsu
baldin bazara zeharo
zure aitak hemen itxarongo dau
zeuk hemen hartu arte to (bir)

Abel Enbeita

LEHEN PUNTUA

doinua: *Hargin andaluzarena*

Puntua: Amuriza Lizaso
eta Lopategi

Abel: atzetik gauden orok
behar hemen segi
gazteak nola ez duten
geroa eskegi
horren ilusioa
zutik geldi bedi

AZKEN PUNTUA

doinua: *Pello Joxepe*

Abel: Kantari onik eman izan du
euskaldun bertsolaritzak
zenbat bertso eder Enbeita edo
Lopategi ta Amuritzak

frutu ugari emana bait du
Euskal Herriko zuhaitzak

Puntuak: denborarekin ikusten dira
gizon handien emaitzak.

GAIA

doinua: Naufragoarena

Itzal ezazu aurreko kutxa
dana ez bedi geratu hutsa
izango duzu biharkoz ere
traste txikian laguntza (bir)
beraz giltz horrerik bultza
hori ez baita maisutza
kendu begierik hautsa
denbora joan doa aurrera
eta nunbaiten laguntza
biharko ere argi ta alai
behar duzue gorputza (bir)

Telebista hori hain da traketsa
gaizki esana denik ez pentsa
haurtxoei horrek kentzen bait die
bihar etziko ametsa (bir)
esan zaidazu baietza
zutik jarriaz sahetza
hor da nere interesa
bihar edo etzi izango zara
zeure buruan jueza
gaurkoan baina hori baino hobe
duzu oheko babesak (bir)

Ordurik asko duzu emana
haurtxo batentzat hau ez da plana
ez pentsa gero kontra doanik
gurasoaren esana (bir)
zuretzako daukat dana
baita egin ere ahal dana
etor zaitez aitagana
nik besoetan utziko zaitut
ohe gainean etzana
hara agur ta bihar artean
eman aitari lastana (bir)

Xabier Arriaga "Txiplas"

LEHEN PUNTUA

doinua: Hargin andaluzarena

Puntuak: Amuriza Lizaso
eta Lopategi

Txiplas: hoien artean bada
hamaika komedi
horren bidetik neuk be
gura nuke segi

baina ez al da izango
niretzat gehiegi.

AZKEN PUNTUA

doinua: Kantore berri xarmant batzuek

Txiplas: Alper-alperrik ez dira izango
 orain hemen nire hitzak
 danetatikan irakasten du
 mundu honetan bizitzak
 horrexegaitik kontatu behar
 bakoitzak bere ekintzak

Puntua : denborarekin ikusten dira
 gizon handien emaitzak (bir)

GAIA

doinua: Zeru altuan zegoen Jaunak

Telebistaren aurrean jarritz
beti hainbat berriketa
egiten dozu hamaika farre
geldiune ta olgeta
agindu hauxe da zuretzako
ta ez ilundu kopeta
zoaz ogera alabatxoa
nahiko berandu da eta.

Nahiko egin duzu gaurkoagaitik
telebistari begira
nahiz ta dakidan hortxe jarraituz
hori dala gaur desira
hala ta guzti hoba izango da
lehenbailehen erretira
zure moduko ume guztiak
jadanik lotan ari dira.

Labur samarra egingo zaizu
ene neskatila gaba
bihar logura izango dozu
eta kontuak atara
horrexegaitik itzali hori
eta zoaz zu lotara
bihar goizetik jeiki behar dozu
joateko eskolara.

Unai Iturriaga

LEHEN PUNTUA

doinua: Hargin andaluzarena

Puntua: Amuriza Lizaso
 eta Lopategi

Unai: maixuen sorta hortan

falta Santi Begi
berarekin ikasten
nahi nuke nik segi
eta txapelduna gaur
onena irten bedi.

AZKEN PUNTUA

doinua: Erreguetan

Unai: Beti bezala helduak dira
txapelketa hontako saltsak
noren aldera egingo ote du
gaurko honetan balantzak
eskola ona sortu duela
segurua dauka Baltzak

Puntua: denborarekin ikusten dira
gizon handien emaitzak

GAIA

doinua: Gai horrek badu mamia

Sehaska kantutan ez naiz
ni inoiz izan maixu
baina nere alabari
ein behar enbarazu
lo egin behar duzula
hartua daukat kasu
egin behar ditut beraz
makinatxo bat pausu
sortu behar bihotzean
txinparta edo ta su
begiak itxi itzazu
lo-lo egin ezazu (bir)

Telebista horrek alaba
nonbait digu alaitu
txarra edo ona denik
nik ezin dut epaitu
telebistako kontuak
zentzua behintzat baitu
hala ere zure aitaren
hitza behar duzu aitu
begi-itxita eta loak
behar duzu amaitu
bestela kokoa etorri
ta braust! jan eingo zaitu (bir)

Nere amak eingo luke
bai nik baino hobeto
baina zertxobait badaukat
gaur zuri esateko
telebista horri ez diot
behar aina errespeto
ordua ere heldu da
neska oheratzeko
lo egin zazu maitea
lasai eta ederto
biharkoan eskolara

buru argiz joateko (bir)

AZKEN AGURRAK

doinua: Zeru altuan zegoen Jaunak

Haritz: Hau aipatzeko esan deustie
lehenau momentu batean
zelan gabiltzan esan nahi nuke
gure unibertsitatean
hainbeste ikasle klase barik ta
maixuak kanpoko atean
normalkuntzarik ez da lortuko
hori konpondu artean.

doinua: Zeru altuan zegoen Jaunak

Jon: Beraz Haritzek problema hori
dautsue adierazi
baina ezin naiz une honetan
joan hemendik ihesi
guk entzulego hoberik inun
ezin genuen bereizi
bertsozalea txapel haundia
gaur zeuk zenduke merezi.

doinua: Mexikarra

Mañu: Bertsoz ez ditut bete
gaurkoz zuen nahiak
albora aldegin dit
azkenengo gaiak
eskerrik asko ta agur
arreba ta anaiak
Gabonak ongi pasa
ta on egin turroiak.

doinua: Nigarrez sortu nintzan

Igor: Gaurkoan ez dut kanta
ondo ta apalki
gero emango ditut
hiru lau aitzaki
orain kanta nahi diot
bikote on bati
mila esker Lopategi
mila esker Santi.

doinua: Arratsaldeon lendabizitik

Ireneo: Beti penatan ez da izaten
euskaldunaren bizitza
toki honetan txaloak eta
odolak goitik dabilta
baina azkenean emango dute
gaurko txapelan emaitza
mila esker ta sendatu daigun
Bizkaiko bertsolaritza (bir)

doinua: Iparragirre abila dela

Abel: Lau aldiz joan naiz komunerantza
saioa hasi orduko
eta saioa hor atera da
ustean halamoduko
ni orain lasaitzera
nijoa bazkaltzera
ta gogotik dut hartuko
baina entzule zure laguntza
guk noiz dugu eskertuko.

doinua: Kantore berri xarmant batzuek

Txiplas: Neure agurra bota nahi diot
hor dagoen txapelari
turnoa ez zaio oraindik heldu
neure buru haundiari
nork jarriko ta norentzako dan
jarri danok hortxe adi
txapeldun zaharrak jantzi deixola
irebazle barriari (bir)

doinua: Kantatzera nijoa

Unai: Zerbait garela behintzat
ez al da agiri
bertsolaritzan daude
Bizkaian zati bi
eskerrak emon behar
bazaizkio inori
eman iezaizkiozue
Jon Lopategiri (bir)

TXAPELDUNAREN BERTSOAK

Jon Enbeita

doinua: Jakingo zendun aita Balentin

Eskertzen dautsut zuri entzule
benetako txalo hotsa
zuri senide zuri laguna
konfidantzaren aitortza
bertso-eskolan zabiltzan horri
animuaren ahotsa
hainbat zatitan banatu nahi ta
hain txiki daukat bihotza.

Zer ez neuskizu zuri emongo
bihotzeko ama Klara
bertsolarien kabi hartako
beroa izan baitzara
ta mosu bana krabelin pare
Oihane eta Zihara
zuri Karnele bertsoz azaldu
ezin leiken besarkada.

Jakingo zendun aita Balentin
azken hau zeuretzat zela
nik sinisten dot zeure argitik
guri adi zagozela

hau amaitzean jantzi nahi dautsut
Arenalean txapela
luzitu daizun garai hartako
txapelketetan bezela.

Jon Lopategiren bertsoak

doinua: Lurraren pean

Mila zorion Urretxindorra
kantu denetan oparo
amets eder bat amets justu bat
bete dozu gaur zeharo
aldiberean atzeko txindor
gazteei begira nago
eta parkatu sentitzen banaiz
inoiz baino harroago
neguan negu bertsolaritza
Bizkaian loretsu dago (bir)

Nik Jonen aita ikusi neban
aurreko Arenalean
txapelak zelan bi bider hartu
eban bere magalean
urteak joan eta etorri
orain semeak aldean
libertatezko ames goxoak
sortuz bere itzalean
kanta ta korri Urretxindorra
kanta mundu zabalean (bir)